# Mintegia **Rio+20 ondoren**: Hori da nahi dugun etorkizuna?











**Argitaratzaileak:**

**Fundación IPADE**
C/ Altamirano 50, 1º. 28008 Madrid
T. 91 544 86 81- www.fundacion-ipade.org

**UNESCO Etxea - Euskal Herriko UNESCO Zentroa**
Isozaki Atea - Bizikidetasun plaza. Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala. 48001 Bilbo
T. 94 427 64 32 - www.unescoetxea.org

**Koordinazioa:**
Celia Barbero Sierra - **Fundación IPADE**
Aitana Uria Gutiérrez - **UNESCO Etxea**
Nekane Viota Fernández - **UNESCO Etxea**

**Idazketa:**
Jorge Navacerrada - Altekio

**Idazketan laguntzaileak:**
Leida Rijnhout - **The Northern Alliance for Sustainability (ANPED)**
Roberto Bissio - **Instituto del Tercer Mundoko zuzendaria eta Latinoamerikako Red del Tercer Mundoko ordezkaria**
Jerónimo Aguado Martínez - **Nekazaria eta Plataforma Ruraleko koordinazio taldeko kidea**

**Zuzenketak:**
Celia Barbero Sierra - **Fundación IPADE**
Javier Fernández - **Altekio**
Arantxa García Gangutia - **Fundación IPADE**
Alejandro González de Castro - **Fundación IPADE**ko kolaboratzailea
Ana Pardo - **Altekio**
Concepción Piñeiro - **Altekio**
Aitana Uria Gutiérrez- **UNESCO Etxea**
Eva María Vicente Morales - **Fundación IPADE**
Nekane Viota Fernández - **UNESCO Etxea**

**Diseinu eta maketazioa:**
Kobografico comunicación

**Itzulpena:**
Bakun S.L.

**Argazkiak:**
Creative Commons baimeneko argazkiak, MEC Irudi Bankukoak, UNESCO Etxekoak eta Fundación IPADEkoak

**Lege-gordailua:** M-9152-2013

BY NC SA

Lan hau Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 3.0 España (CC BY-NC-SA 3.0) baimena dauka. Hemen eskuragarri: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/

**Argitalpen honetako testuetako erreprodukzio osoa edo partziala baimentzen da jatorria aipatuz eta argazkien sinadurak errespetatuz gero.**

# Indizea

1 Hitzaurrea 5

2 Sarrera 9

3 Rio+20: Iparraldeko eta Hegoaldeko ikuspegiak 13

Rio+20 nahi dugun etorkizuna. *Leida Rijnhout* 14

Rio+20 hasi baino ez da egin. *Roberto Bissio* 20

Berde nahi zaitut, berde! Zer dagoen jokoan Rio+20n. *Jerónimo Aguado Martínez* 23

4 Aldaketaren aldeko beste ahots batzuk: nahi ditugun agendak 27

Elikadura eta ura 32

Giza eskubideak 33

Kontsumo eraldatzailea 34

Mundu mailako ingurumen-erronkak 35

Energia 36

5 Ekintza-proposamenak 37

6 Lankidetzarako funtsezko eragileak 59

7 Komunikatuak 65

# 1

# Hitzaurrea





**Argazkia:** Ramiro Nogal

2012ko ekainean, Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Biltzarra egin zen, Rio de Janeiron. Biltzar horri Rio+20 esaten diote; izan ere, 2012an, 20 urte bete ziren Rio de Janeiron 1992ko Lurraren Goi Bilera egin zenetik. Biltzar horren helburuak ziren “munduko liderrek planetaren garapen iraunkorraren alde hartutako konpromisoa berritzea”, nazioarteko komunitateak 1992. Urteaz geroztik hartutako konpromisoak bete diren ebaluatzea eta “ekonomia berdea” garapen iraunkorra bermatzeko eta pobrezia kentzeko baliagarria den eztabaidatzea. Ban Ki Moon-ek, Nazio Batuen idazkari nagusiak, hauxe esan zuen: “belaunaldi bakoitzean behin izaten den aukera horietako bat da Rio+20, eta denok aprobetxatu behar dugu”.

Dena den, biltzarra prestatzeko saioetan bertan, Rio+20 etsigarria izango zelako sentsazioa sortu zen. 2012. urtearen hasieran aurkeztutako negoziaziorako dokumentuaren zirriborroak agerian utzi zuen partaideak ez zetozela bat gaur egungo ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-krisiaren jatorriari dagokionez, eta partaideek behar baino gogo eta borondate politiko gutxiago zutela krisiari aurre egiteko. Hori ikusita, argi zegoen biltzar horretako ondorioek ez zituztela aseko gobernuz kanpoko erakundeen eta gizarte-mugimenduen eskaerak, eta azken adierazpenak agerian utzi zuen hori. “Nahi dugun etorkizuna” amaierako testuaren lehenengo zirriborroa zabaldu zenean, iritzi batzuen arabera, testu hartan ez zegon helburu berritzailerik, munduko garapen iraunkorrari bide egingo zionik: 1992ko Lurraren Goi Bileran onartutako adierazpenaren bertsio urardotua zen.

Testuingurua etsigarria zen. Dena den, bagenekien goi-bileretan, arrakastatsuetan nahiz ez arrakastatsuetan, ezartzen direla hurrengo urteetarako lan-agendak. Horregatik, ezinbestekotzat jo genuen herritarrek modu aktiboan parte hartzea goi-bileraren aurretik, bitartean eta ondoren. Hortaz, motibazioari eutsi genion, eta GKE-ek eta beste mugimendu eta erakunde batzuek Rio+20en parte hartu genuen, bai eta Herrien Goi Bileran ere. Itxaropena genuen negoziazioetan herrialdeek konpromiso gehiago har-

tuko zituztela eta gizarte zibilaren aldarrikapenak entzungo zituztela. Tamalez, negoziazioek ez zuten fruitu handirik eman. Ekonomia-krisiaren aitzakiapean, gobernuak geldirik gelditu ziren, eta ez zuten harago begiratu nahi edo ahal izan.

Amaierako agiria 193 herrialdek onartu zuten; dena den, gehienen ustez, erdipurdikoa da. Herrialdeetako batek berak ere ez zuen epe laburreko neurririk hartu nahi izan; batez ere, herrialde aberatsenek. Horregatik, testua murriztu egin zuten, ezein herrialde atsekabetu ez zezan. Baina, azkenean, testuak NBEko idazkari nagusi Ban Ki-moon atsekabetu zuen. Horren harira, biltzarraren azken egunean esan zuen goi-bilerak maila kaskarra izan zuela. Dena den, hurrengo egunean, atzera egin eta agiri haren alde hitz egin zuen.

Amaierako agiriak, “Nahi dugun etorkizuna” deritzonak, hizpidera ekartzen du garapen iraunkorra, baina ez ditu aipatzen premisa eztabaidaezinetako batzuk; hala nola, planetaren muga ekologikoak onartu behar ditugula, eta behar-beharrezkoa dela aberastasuna egokiro banatzea. “Nahi dugun etorkizuna” deritzon agiriak hizpide izan beharko lituzke ingurumen- eta gizarte-justizia, giza eskubideak, ekitatea... eta ez lituzke zertan alde batera utzi, ekonomia-krisiaren aitzakiapean, zinez nahi dugun etorkizunaren oinarri izango diren balioak.

Edonola ere, estatuen ekintzarik ezak ekitera bultzatzen gaitu. Gizarte zibileko kideok borroka egin behar dugu amesten eta sinesten dugun munduaren alde; erantzukizun hori dugu. Rio osteko garaia hasi da, bai eta 2015 osteko etorkizuna diseinatzen hasteko garaia ere. Milurteko Garapen Helburuak betetzeko epea amaitzear da, eta, orain, beste inoiz baino gehiago, ezinbestekoa da herritarrek parte hartzea iraunkortasun- eta garapen-agendetan. Lanean jarraitu behar dugu, nazioartean, nazio eta eskualde mailan eta tokian-tokian onartutako obligazioak bete ditzatela eskatzeko, politikan parte hartuz eta gizarte-mobilizazioaren bidez: hitz gutxiago eta ekintza gehiago eskatu behar dizkiegu erabakiak hartzen dituztenei.

Oinarri hori abiapuntutzat hartuta, UNESCO Etxeak eta IPADE Fundazioak erabaki genuen indarrak batzea, lehentasun batzuk ezartzeko eta Rio+20 osteko lan-agenda bateratu bat egiteko 2015 osteko etorkizunari begira. Horren harira, Madrilen eta Bilbon bildu ginen, beste erakunde batzuekin batera, Rio+20ko emaitza eskasen



**Argazkia:**
Ramiro Nogal



**Argazkia:** Ramiro Nogal

gainean hausnartzeko, eta, batez ere, hainbat gizarte-plataformarekin batera, proposamen inspiragarriak egiteko, garapen iraunkorraren etorkizunaren eta pobrezia ezabatzearen inguruan eta 2015 osteko etorkizunari begira.

Argitalpen hau da, hain zuzen ere, lehenengo urrats horren emaitza. Beronen helburua da giro egokia sortzea, hainbat gizarte-eragile lankidetzan jardun daitezen, eta, lankidetzaren bidez, indar handiagoa eta eragin-indar handiagoa izan dezagun. Eskerrak eman nahi dizkiegu bidaia honetan irudimenez eta autonomia eta elkarrenganako konfiantza oinarri hartuta parte hartu duten pertsonei eta erakundeei. Topatuko ahal dugu jende gehiago bidean!

*Rio+20ko emaitza eskasen gainean hausnartzeko, eta, batez ere, hainbat gizarte-plataformarekin batera, proposamen inspiragarriak egiteko bildu ginen.*


RECONVERSIÓN AZUCARERA. CUBA.
SEGURIDAD ALIMENTARIA Y AGUA
grupos de consumo.
Consumo responsable.
Responsabilidad gradual. diferenciada.
tribunales populares.
MEDIOS comunicación.
No monetario ("castigo").
CONSUMO TRANSFORMADOR
DERECHOS HUMANOS
lo pequeño Enfría, mantiene Biodiversidad y no desertifica.
(AF, local, campesinos).
PROBLEMAS AMBIENTALES GLOBALES
POLÍTICAS
DDHH.

# 2 Sarrera




**Argazkia:** Altekio

"Rio+20 ondoren: Hori da nahi dugun etorkizuna?" deritzen mintegiak Bilbon eta Madrilen egin ziren, 2012ko urrian, Rio+20 amaitu berri zenean. Bi mintegiek antzeko egitura izan zuten: bi egun iraun zituzten. Lehenengo eguna irekia izan zen jende guztiarentzat. Bertan, hainbat adituk parte hartu zuten, eta hainbat motatako ekitaldiak egon ziren; besteak beste, elkarrizketak kazetariekin eta mahai-inguruak. Bigarren egunean, lan-saio bat egin zuten iraunkortasunaren eta garapenaren arloko erakunde batzuek.

**3. atalean**, artikulu batzuk jaso ditugu, kazetariekin elkarrizketan jardun zuten hizlarien, hots, Leida Rijnhout-en, Roberto Bissio-ren eta Jerónimo Aguadoren, hausnarketak biltzen dituztenak. Muinean, Iparraldeko nahiz Hegoaldeko mugimenduek eta erakundeek Rio+20 Goi Bilerako emaitzei buruz eginiko azterketa dago; hau da, arrakastei, porrotei, lorpenei, hutsegiteei eta bilera horren harira sortutako itxaropenei buruz eginiko azterketa, goi-bilera horretako protagonista batzuen ikuspegia oinarri hartzen duena.

**4. atalean**, mahai-inguruetako partaideen ekarpenak jaso ditugu, laburtuta. Mahai-inguruetan, Hegoaldeko zein Iparraldeko ordezkariek parte hartu zuten: garapen- eta ingurumen-agenden adostasun- eta desadostasun-puntei buruz hausnartu zuten, eta ingurumen-iraunkortasunerako alternatibak, tokian tokikoak zein mundu-mailakoak aztertu.

Bigarren egunean, partaidetza izan zen lan-saioaren gakoa. Hori dela eta, erakunde batzuk gonbidatu genituen, mintegian landutako gaiekin lotura dutenak; hau da, garapen-ereduarekin, iraunkortasunarekin, pobrezia ezabatzearekin eta abarrekin lotura dutenak. Helburua zen batera hausnartzea eta alternatibak proposatzea; hots, zinez nahi dugun etorkizunera are gehiago hurbiltzen lagunduko diguten alternatibak proposatzea. Jardunaldian, partaideek tartea izan zuten elkar ezagutzeko, eta, elkar ezagutuz, sare-lana

[1] Madrilgo mintegiaren streaming-a: http://postriomas20.blogspot.com.es/

eta lankidetza bultzatuko duen gertutasun- eta konfiantza-giroa sortzeko. Erakunde-partaideen gizarte- eta politika-eragina handitzeko estrategia bat izan zen hori.

Helburua zen prozesu errealista bat bultzatzea, aldi berean itxaropena emango zuena. Prozesu horretan, eginiko lana eta lorpen txikiak eta handiak aintzatetsiko ziren, eta, aldi berean, krisi-egoera konplexu bat, etorkizun jakinik gabekoa eta maila askokoa bizi dugula onartuko. Azken batean, kontua zen errealitatea kritikoki aztertzea —errealitatea nabarmen hobe baitaiteke— eta, aldi berean, prozesuaren beraren edertasunaz jabetzea. Edertasun horren lekuko dira, hain zuzen, lankidetza, irudimena, eta adierazgarriak eta onak izan diren ekimenen erresilientzia.

Gizarte-berrikuntzako prozesu horri ekite aldera, talde-lana bultzatzeko metodologiak erabili ziren. Motibazioa eta inspirazioa dira metodologia horien ardatz, eta gizarte-teknologiak, metodologia horien adibide.

Gizarte-teknologiak (GT) dira modu komunitarioan sortutako teknika, tresna eta metodologia jakin batzuk, aldaketarako partaidetza- eta integrazio-prozesuak bultzatzen dituztenak. Honetarako balio dute: adimen kolektiboa eta talde-sormena areagotzeko, aniztasunari tartea egiteko, partaidetza bultzatzeko eta gatazkak sormenezko lankidetza bilakatzeko.

Teknologia horien helburua da beste egoera eta testuinguru batzuk sortzea, taldeek eta komunitateek gaur egun bizi dituzten ez bezalakoak, zertarako eta, gaur egungo gizarteek dituzten erronka globalei heltzean, irtenbide berritzaileak eta erresilientziadunak emateko. Teknologia horiek taldeen gaitasuna balioesten dute; hainbat testuingurutan aplika daitezke, erraz aplikatu ere, eta metodologia irekiak dira, kultura askearen balioen araberakoak. Nazioartean, “Art of hosting” delakoaren esparruan sartzen dira.

Lan-saio hauen fruitu dira azken ataletan sistematizatu eta laburtu ditugun talde-ekoizpenak.



**Argazkia:**
Altekio






**5. atalean** (Ekintza-proposamenak), lan-saioetan sortutako proposamenak jaso ditugu, bost gai-multzo edo lehentasunezko ekintza-eremu hauetan jaso ere: elikadura eta ura; giza eskubideak; kontsumo eraldatzailea; mundu mailako ingurumen-erronkak; eta energia (azken gai hori Madrilen soilik jorratu zuten).

**6. atalean** (Lankidetzarako funtsezko eragileak), jardunaldian parte hartu ez zuten gizarte-eragileak izango ditugu hizpide; zehazki, “nahi dugun etorkizuna” eraikitzeko prozesuan parte hartzea nahi dugun gizarte-eragileak.

**7. atalean** (Komunikatuak), komunikatuak jaso ditugu; alegia, erakunde-partaideek mintegia amaitzean eginiko deiak.



# 3

## Rio+20: Iparraldeko eta Hegoaldeko ikuspegiak






**Argazkia:** Fundación Ipade

Atal honetan, Leida Rijnhouten, Jerónimo Aguadoren eta Roberto Bissioren ikuspegiak jaso ditugu. Mintegietan kazetariekin elkarrizketan jardutera gonbidatu genituen hiru pertsona horiek. **Leida Rijnhout** Bilbon jardun zen; **Jerónimo Aguado**, Bilbon eta Madrilen; eta **Roberto Bissio**, Madrilen. Leida Rijnhouten eta Roberto Bissioren artikuluek antzeko elementuak dituzte; horregatik, bata bestearen atzetik jarri ditugu. Amaitzeko, Jerónimo Aguadoren artikulua jarri dugu.



Leida Rijnhout

## Rio+20: Nahi dugun etorkizuna

*Leida Rijnhout*

THE NORTHERN ALLIANCE FOR SUSTAINABILITY (ANPED) ERAKUNDEAREN ZUZENDARI EXEKUTIBOA

(Iñaki Bárcenaren itzulpena)

Kristobal Kolonen itsas flota, Espainiako erreginak ordaindurikoa bera, 1492. urtean iritsi zen Ameriketara. Urte hartan hasi ziren natura-baliabideak (eta giza baliabideak) mugarik gabe ustiatzen, munduaren beste aldean Europako Inperioa eraikitzeko. Aberaste- eta pobretze-prozesu aktibo bat hasi zen, eta handitu egin zen herrialde garatu eta garapen bidean dauden herrialde deritzenen arteko zuloa. Ez da historiako gertakari edo gorabehera bat; aitzitik, oker eta bidegabeki antolatutako mundu mailako ekonomiaren ondorioa da.

Duela 500 urte sortu zen, hain zuzen ere, garapenaren eta ingurumen-degradazioaren eta munduko ondasunen erabilera ezegokiaren arteko lotura. Dena den, askoren ustez, lotura hori ez da existitzen. Txosten latza argitaratu zuen Erromako Klubak (*Hazkundearen mugak*[2]), bai eta Brundtland Batzordeak ere (*Gure etorkizun komuna*[3]). Tim Jackosek ere azterlan gordina argitaratu berri du (*Oparotasuna hazkunderik gabe*[4]). Hala ere, aberastasuna gauza positibotzat jotzen da. Askotan, ordea, ez da kontuan hartzen nondik datorren aberastasuna.

Rio 92ko Lurraren Goi Bileran, garapen iraunkorraren 27 oinarrizko printzipioak onartu zituzten. Goi-bilera horren ondoriozko dokumentua, hots,

[2] Meadows, Dennis H. eta Meadows, Donella L. (1973). Los límites del crecimiento. Erromako Klubak eginarazitako txostena. Mexiko. Kultura Ekonomikoaren Funtsa.
[3] Ingurumenari eta Garapenari buruzko Munduko Batzordea (Brundtland, Gro Harlem koord.). (1987). Nuestro futuro común. Espainia. Alianza argitaletxea.
[4] Jackson, T. (2011). Prosperidad sin crecimiento. Economía para un planeta finito. Espainia. Icaria argitaletxea.

Agenda 21[5], interesgarria da; tresna baliagarriak ditu garapen iraunkorra nazio mailan eta tokian-tokian aplikatzeko. Beste bi tresna hauek ere plazaratu ziren: Aniztasun Biologikoaren Hitzarmena eta Klima Aldaketaren Esparru Hitzarmena. Geroxeago, 1994an, herrialde kaltetuenek hala eskatuta, Rioko hirugarren hitzarmena egin zen: Basamortutzearen eta Lehorteen aurkako Borrokari buruzko Hitzarmena. Halaber, basoen kudeaketa globala egiteko printzipioak diseinatu ziren. Hitz batez, ezohiko baikortasuna sortu zen, ingurumenaren arloan gaur egun dauden garapen-paradigmei begira beste hautabide batzuk emateko.

Hamar urte geroago, Johannesburgon, Rio+10 Goi Bileran, baikortasun hori desagertu egin zen. Rio 92ko Lurraren Goi Bileran, beste pentsamolde bat eta beste kontzientzia bat sortu ziren, baina, tamalez, ez zen nahikoa izan indarrean den paradigma ekonomikoa aldatzeko, ez gobernuetan, ez negozioetan, ez unibertsitateetan, eta, egian esan, ez eta gizarte zibileko erakundeetan ere.

Eta, horregatik, 2012an, Garapen Iraunkorraren Goi Bileran, talde batzuek uste zuten etendura bat gertatuko zela, hots, "ekonomia berdea"ren ikuspuntua[6] erabiliz gure ekonomia-sistema funtsean aldatuko zela; beste talde batzuek, aldiz, egungo sistemari eutsi nahi zioten, eta "ekonomia berdea" kontzeptuaren aurka zeuden, erabat aurka egon ere.

## NEGOZIAZIO-PROZESUA

"Zero Draft" (zero zirriborroa) delakoa izan zen Rio+20ko prestaketa-lanen abiapuntua. Dokumentu horrek milaka orrialde zituen, eta gobernuen, Nazio Batuen instituzioen eta gizarte zibileko erakundeen ekarpenak jasotzen zituen, baina ez zuen behar bezalako oinarririk. Ez zuen jomugarik, azterketa kritiko eta argirik, berrikuntzarik, helbururik eta, batez ere, lidergo politikorik, abian jartzeko prozesu bat, iraunkortasun ekologikoaren, ekonomikoaren eta sozialaren ereduaren arabera aldatuko zuena ekonomia. Hainbat bilera egin zituzten zirriborroari buruz hitz egiteko. Negoziazioaldi zinez mantsoa izan zen; izan ere, herrialdeek oso iritzi ezberdinak zituzten. Batzuk "ekonomia berdea"ren alde zeuden, guztiz alde egon ere (pobrezia ezabatzearen eta garapen iraunkorraren testuinguruan); beste batzuk erabat aurka zeuden; eta beste batzuk zalantzan zeuden; izan ere, artean ez zegoen "ekonomia berdea"ren definizio argirik.

*Talde batzuek uste zuten etendura bat gertatuko zela, hots, "ekonomia berdea"ren ikuspuntua erabiliz gure ekonomia-sistema funtsean aldatuko zela.*

Oro har, Europar Batasunaren eta Ameriketako Estatu Batuen ustez, "ekonomia berdea"ren agendak aukerak ekarriko zituen: merkatu berde bat sortuko zuen, bai eta enplegu berdeak eta hazkunde berdea ere. EBk modu kritikoagoan ikusi zuen kontzeptu hori; helburuak eta datak nahi zituen (ibilbide-orri bat). Halaber, atzean utzi nahi zuen "ekonomia marroia" deritzona. 77 Taldea eta Txina ez zetozen bat. Herrialdeen interesak eta aukerak ikusita, ezinezkoa zen bat etortzea. Latinoamerikako herrialde batzuek (Boliviak, Ekuadorrek...) zalantzan jartzen zuten kontzeptu hori: ez zitzaien iruditzen justiziak eta pobrezia ezabatzeak zerikusirik izan zezakeenik agendaren erdi-erdian ekonomia jartzearekin.

Herrialde horien ustez, "ekonomia berdea" tresna bat zen, natura merkaturatzeko eta ondasun komunak pribatizatzeko. Ama Lurraren eskubideen kontzeptua bultzatu zuten, baina, negoziazio-prozesuan, modu defentsiboegian jokatu zuten agenda orekatzeko, eta, hori, egia esan, tamalgarria izan zen. Halaber, gobernuz kanpoko erakundeekin aliantzak egiteko aukera galdu zuten. "Ekonomia berdea"ren aurka

---

[5] Inguruneari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarra. (1982). Agenda 21. Nazio Batuen Ekintza Programa. Lurraren Goi Bilera, Rio de Janeiro. NBE.

[6] Honela deskribatzen da "ekonomia berdea": giza ongizatea eta gizarte-ekitatea hobetzen duen ekonomia, ingurumen-arriskuak eta eskasia ekologikoa nabarmen murrizten dituena. Beste hitz batzuetan esanda, "ekonomia berdea" ingurune ekonomiko bat da, karbono-isuri gutxi dituena, baliabideak eraginkortasunez baliatzen dituena eta, aldi berean, sozialki ekonomikoa.

egotea ez da estrategia zentzuduna; izan ere, horrek ekonomia iraunkorraren aldeko jarrera konstruktiboak blokeatzen ditu, eta beren interesen alde egitearren ekonomia marroian jarraitu nahi duten gobernuak eta enpresak bultzatzen. Garapen iraunkorra lortu nahi badugu, ezinbestekoa da ekonomia aldatzea, edozein koloretakoa dela ere, eta ezinbestekoa da oinarrizko eztabaida bat izatea.

Gizarte zibilak eta Asiako herrialdeek ere eszeptizismo handia zuten "ekonomia berdea"ri zegokionez, baina bestelako argudio batzuk zituzten. Haien ekonomia esportazioan oinarritzen da, eta iruditzen zitzaien "ekonomia berdea" beste muga bat izango zela beren ekonomiarako. BEIT[7] herrialdeek, aldiz, ikusi zuten "ekonomia berdea"k bizkortu zezakeela beren ekonomia; batez ere, hazkunde berdea susta zezakeelako.

Negoziazioak oso geldoak izan arren, elementu positibo batzuk egon ziren, eta aipatzekoak dira. Nazio Batuen historian, lehenengo aldia izan zen gure ekonomiaren oinarriak eztabaidagai zirela. Eztabaida interesgarriak egon dira gai hauen inguruan: Merkatuan jarri behar al dugu natura? Hala eginez gero, nola? Nola igaro zorrean oinarritutako ekonomia batetik komunean oinarritutako ekonomia batera? Hazkundean oinarritutako ekonomian, nola errespetatu planetaren mugak? Nola antolatu teknologia, pertsona guztien eskura egon dadin? Zuhurtziaren printzipioari jarraituz, zer irizpide behar ditugu teknologia berrietarako? Nola integratu giza eskubideak "ekonomia berdea"n[8]? Eztabaida horiek ezinbestekoak izan ziren, bai ordezkari ofizialentzat, bai gizarte zibilarentzat. Esan beharra dago gizarte zibilak, borroka egitean, hainbat jarrera eta zalantza plazaratu zituela.

Negoziazio-aretoetan gertatu zen okerrena, eta gizarte zibilean, onena. Erakunde handiak konturatu ziren oso pragmatikoa izatea ez zela lagungarria izango agenda berdea abian jartzeko, eta, hortaz, planteamendu erradikalagoak mahaigaineratzen hasi ziren. Negoziazio-prozesu ofizialaren barruan eta handik kanpo, hainbat ekintza berritzaile gertatu ziren. Besteak beste, Herrien Iraunkortasunari buruzko Itunak[9] egin zituzten: azkenean, hamalau itun egin zituzten, eta manifestu bateratu bat; itun horiek aplikatzeko ekintza-planak zehaztu zituzten, eta eragile jakin batzuk aukeratu.

## AMAIERAKO EMAITZA

Eztabaida interesgarri asko egon ziren; dena den, agiri ofizialean ez da funtsezko elementurik jaso, garapen iraunkorrera berehala bideratu gaitzakeenik. Ez dira aipatzen planetaren mugak, hazkundearen mugak, natura-baliabideen neurrizko erabilera, giza eskubideak, nahikotasuna, etab. Alegia, garapen iraunkorrean pentsatzeko oinarri-oinarrizkoak diren kontzeptuak. Jakintza komunari eta zientifikoari dagokionez, jakintza horiek Rio minus 20an gelditu dira, Erromako Klubaren eta Brundtlanden txostenak baino atzerago. Edonola ere, okerrena da testu osoan zehar "hazkunde ekonomiko iraunkorra" dela azken irtenbidea eta hori garapen iraunkorraren guztiz aurkakoa dela. Ez al da harrigarria herrialde batek berak ere ezer ez esatea horri buruz? Eta "hazkunde ekonomiko iraunkorra" hemeretzi aldiz agertzea garapen iraunkorrari buruzko testu batean?

Gauza asko esan dituzte amaierako agiriari buruz, "Nahi dugun etorkizuna" deritzon horri buruz. Zientzialari, ekintzaile eta kazetari askok iruzkin kritikoak idatzi dituzte. Inor ez dago pozik. Idazka-

[7] Brasil, Errusia, India eta Txina.
[8] Are gehiago, kontuan hartzen badugu emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak ez zituztela aintzat hartu eta genero-ekitateari buruzko aipamenak erretorika hutsa izan zirela.
[9] Ikus http://sustainabilitytreaties.org

ri nagusi Ban Kimoon ere ez zegoen pozik ekainaren 20an, asteazkenean, eta gobernuei eskatu zien dokumentu hura hobetzeko, munduaren premietara egokitzeko. Ostiralean, aldiz, esan zuen oso pozik zegoela amaierako agiriarekin. Asteazkenetik ostiralera, baina, agiria ez zen ezer aldatu, ez koma bat, ez eta hitz bakar bat ere.

ANPEDen izenean, dokumentu bat zabaldu genuen Interneten, “Nahi ez dugun etorkizuna” zeritzona, eta, ordu gutxi barru, ehunka sinadura jaso genituen, erakundeenak eta gizabanakoenak. Sentsazio orokorra zen amaierako agiri ofiziala atzerapauso bat zela, Rio 92ko Goi Bileran eta Johannesburgoko Goi Bileran (Rio+10) onartutako agirien aldean. Antza denez, finantza-krisia konpontzea garrantzitsuagoa da gizarte- eta ingurumen-krisia konpontzea baino. Estatu bakoitzaren interesak garrantzitsuagoak dira mundu mailako interesak baino. Dena den, sindikatuek behin eta berriz esaten dutenez, “Ez dago enplegu berderik planeta hil batean”.

Hori horrela, nola dago botila? Erdi beteta ala erdi hutsik? Bada, nahiko hutsik, tanta gutxi batzuk gelditzen badira ere. Hori gorabehera, berriro heldu behar diogu planeta osasuntsu eta bidezko baten aldeko borrokari; izan ere, baikorra izatea betebehar morala da. Botila bete behar dugu. Rio atzean utzi eta, berriro ere, gure estrategiei buruz hausnartu behar dugu, dokumentu horren alde positiboak erabiliz.

Tanta gutxi horiek erabil ditzakegu etorkizuna lantzeko eta Garapen Iraunkorraren Helburuak diseinatzeko, ezinbestekoa baita helburu horiek ezartzea edo Milurteko Garapen Helburuei jarraipena ematea. Aukera ona dugu esku artean; izan ere, Milurteko Helburuen pentsamoldea, oro har, tradizional samarra da: bil dezagun dirua “pobreei laguntzeko”. Edonola ere, gure ekonomia-sistemaren oinarria da Hegoaldea esplotatzea Iparraldeko bizimoduari eusteko; hortaz, inoiz ez dugu behar besteko emaitza onik lortuko. Hori dela eta, oso garrantzitsua da gizarte zibilak modu proaktiboan parte hartzea Garapen Iraunkorraren Helburuak ezartzeko prozesuan eta, beste eragile batzuekin batera, ingurumen-justiziaren eta gizarte-berdintasunaren alde egitea. Orobat da garrantzitsua amairik gabeko hazkunde ekonomikoa xede ez izatea eta uzkurtze- eta bateratze-eskema erabiltzea.

Iparralde globalean, ezinbestekoa da baliabide gutxiago erabiltzea eta $CO_2$ gutxiago isurtzea.




**Grafika honek bi gauza lotzen ditu: natura-baliabideen erabilera pertsona bakoitzeko eta giza ongizatearen maila. Ikusten dira, batetik, zorua, hots, duintasunez bizitzeko pertsona batek behar dituen natura-baliabideak, eta, bestetik, sabaia, hots, kontsumismoa. Esparru hori hartu behar dugu, gizarte- eta ingurumen-justiziaren alde egiteko.**

**Iturria: ANPED**

*Amaierako testuaren asmo-maila espero baino apalagoa da; horrek, ordea, ez du esan nahi ezer egin ezin dugunik.*

Horrek bide emango die garapen bidean dauden herrialdeei ingurumen-esparru handiagoa izateko, eta, hala, ekonomia hazteko eta ongizate-premiak betetzeko. Planetaren mugak errespetatu behar ditugu (dagoeneko gainditu ditugu), eta, tarta handitzen saiatu beharrean, modu justuago batean banatu behar dugu. Hori ezinbestekoa da munduaren iraunkortasunerako.

Beste tanta bat da Kontsumo eta Ekoizpen Iraunkorrerako Marrakech-eko Prozesua abian jartzeko Esparru Programaren Hamarkada onartzea. Marrakech-eko Prozesuan, gobernua eta beste eragile batzuk elkarlanean ari dira, eta aurrerapauso garrantzitsuak eman dituzte eginiko azterketetan eta proposamen jakin batzuetan. Zinez onuragarria da lan hori ebaluatzea, bai eta lan horrek aurrera jarraitzea ere.

Halaber, lanean ari dira Nazio Batuen Ingurumenerako Programa (NBIP) kategoriaz igotzeko; dena den, oraingoz ez da nahikoa NBEko sisteman erabaki-indarreko agintea izateko. Ez dago argi zer gertatuko den garapen iraunkorrarekin berarekin Nazio Batuen sisteman. Gaur egungo Garapen Iraunkorrerako Batzordea (Sustainable Development Comission: SDC) bertan behera geldituko da, eta, haren lekuan, “Goi-mailako foro politikoa” ezarriko.

## NOLA SORTU ZINEZ NAHI DUGUN ETORKIZUNA?

Amaierako testuaren asmo-maila espero baino apalagoa da; horrek, ordea, ez du esan nahi ezer egin ezin dugunik. Gizarte zibileko erakundeek oso eginkizun garrantzitsua dute, bai eta zientzialariek eta kazetariek ere. Haiek erabaki beharko dute zer egin: agenda ezarri ala gehiengoaren joerei jarraitu eta joera horiek babestu?

Sistema errotik aldatu behar delakoan bagaude, berriro hausnartu beharko dugu gizartean dugun eginkizunari buruz. Agian, zaintza-txakurren antzera jokatu behar dugu, eta jarrera proaktiboa izan. Erakunde asko gobernuek eta enpresek hautatu dituzte. Erakunde horiek esaten dute konstruktiboak direla eta elkarrizketan jardun nahi dutela. Elkarrizketan jardutea ona da, baina kostua handiegia da gizarte-erakundeen jarrera idealista eta politikoa galtzea badakar (eta maiz hori ekartzen du).

Alde handia dago 70eko urteetako jendea eta gaur egungoa konbentzitzeko moduen artean. Garai hartan, gizarte zibileko erakundeak politizatuagoak zeuden, eta multinazionalen eta gobernuen ekintza kriminalak eta bidegabeak agerian jartzen eta salatzen zituzten. Oso argi zegoen “gaiztoak” non jarduten ziren. Presio politikoak hori alda dezake. Gaur egun, gizarte zibileko erakunde gehienen lanak banakako kontsumitzaileen jokabidea du jomuga, eta ez, politika. Herritarren eginkizuna da kontsumitzaile ekologikoak izatea, eta ez, herritar kontzienteak izatea.

Hori oso argi gelditu da Rio+20ko prozesuan zehar eginiko eztabaidetan. Iparraldeko erakunde askoren ustez, “ekonomia berdea” zen norabide egokia; izan ere, pentsamolde hori bat zetorren haien kanpainekin; hau da, kontsumo berdearekin, ekodiseinua bultzatzearekin, birziklatzearekin, ekoefizientziarekin, eta abarrekin. Ekonomia, ordea, kontsumoa eta ekoizpena baino gehixeago da; zerikusia du aberastasuna birbanatzearekin, ondasun komunen erabilerarekin, genero-berdintasunarekin, espazioen plangintzarekin (hirigintza-plangintzarekin), giza eskubideekin eta demokrazia aktiboarekin. Batez ere, Hegoaldeko erakundeek bultzatu zituzten, indarrez

bultzatu ere, gai hauek eta beste batzuk: giza eskubideak, zor ekologikoa berrezartzea, milurtekoaren kontsumo-helburuak eta Ama Lurraren eskubideak. Kontua ez dugu zertan zuri-beltzean ikusi; hala ere, argi dago Hegoaldeko erakundeek eduki politiko handiagoa dutela eta joera txikiagoa dutela irtenbideak teknologiaren bidez soilik bilatzeko. Giza eskubideak, etika eta erantzukizuna ere kontuan hartu behar ditugu. Hegoalde globaleko erakundeek bizi duten errealitatea latzagoa da Iparraldekoena baino. Haientzat, kontua ez da zer auto gidatu erabakitzea —automobil diesel bat edo automobil elektriko bat—, baizik eta janaria sortzeko aukera izatea edo sabelak hutsik izatea.

## NOLA KUDEATU BOTERE-HARREMANAK?

Nola utzi argumenturik gabe garapen horren aurka dauden taldeak (herrialdeak, korporazioak, finantza-institutuak, inbestitzaileak eta beste)? Non daude oztopatzaileak? Auzi horiek gero eta garrantzitsuago ari dira bilakatzen. Ordezkarien iritziak entzun ditut, gizarte zibilaren ekimenak ikusi ditut (politikan eragina izateko estrategietan eta kalean), enpresen asmo onak ulertzen saiatu naiz, eta, hala ere, sinesgaitza egiten zait hain gutxi aurreratu izana.

Har dezagun, adibide gisa, tren bat, iraunkortasuna xede duena. Talde batzuk indarrez ari dira bultzatzen; beste talde batzuk, are indar handiagoz; eta, hala ere, trena ez da mugitzen. Horregatik, gero eta interesgarriagoa iruditzen zait aztertzea ea nor ari den esku-balaztatik hain gogor tiraka. Argi dago talde askori interesatzen zaiela gaur egungo ekonomia-sistema. Agian, Lurreko biztanleen gehiengoa ez da talde horietako kide, baina, edonola ere, talde horiek beste inork baino indar handiagoa dute.




**Argazkia:** Barcex

Goi-bilera ofizialaren aldi berean, Herrien Goi Bilera egin zen, eta, bertan, ekimen asko antolatu zituzten. Horietako bat izan zen Environmental Justice Organisations, Liabilities and Trade (EJOLT)[10] ingurumen-justiziarako nazioarteko programa. Ekimen horretan, ingurumenaren aurkako krimenen biktima batzuek beren esperientzien berri eman zuten. Biktima horietako bi Brasilgo arrantzaleak ziren: gaur egun, gatazkan daude Petrobrasekin, Brasilgo petrolio-konpainia nazionalarekin. Konpainia hori oliobide bat eraikitzen ari da itsasoan, bertako arrantzaleak arrantzan ibiltzen diren lekuan, beren diru-iturri den leku horretantxe. Gatazka hori aspaldikoa da. Komunitate batzuk lekuz aldarazi dituzte, oliobidea eraikitzeko, eta arrantza egiteko duten eremua murriztu egin da: duela urte gutxi batzuk arte arrantza egiteko erabiltzen zuten eremuaren % 12 da gaur egun. Arrantzaleen arabera, 900 familia daude sartuta gatazka horretan. Guanabarako badiako arrantzale-elkartea da AHOMAR (Itsasoko gizon-emakumeen elkartea). Elkarte horretako buruak polizia-babesa du egunean 24 orduz, hainbat heriotza-mehatxu jaso ditu eta. Herrien Goi Bilerako ekimen horretan parte har-

[10] Ikus http://www.ejoltorg

tu zuten bi pertsona hilda aurkitu zituzten, erail-da, handik egun gutxira. Adibide xume horrek agerian jartzen du talde batzuek gizarte- eta ingurumen-justiziaren aldeko borroka gaitzesten dutela, eta garrantzi handiagoa ematen diotela petrolioa ustiatzeari.

Garapen iraunkorraren kontzeptua dagoeneko ez da oinarritzen boluntarioen lanean. Ez da eztabaida teknikoa. Ez da kontsumo txikiko bonbillak jartzea edo lanera bizikletan joatea. Politika da. Milaka pertsonentzat, hil edo biziko kontua da; duintasunez bizitzea da, edo baldintza kaskarretan. Garapen iraunkorra oso gai politikoa da, eta zerikusia du ekonomia-boterea eskuratzeko eta (epe laburreko) ekonomia-interesak babesteko egiten diren borroka handiekin. Bada garaia gaiari serio heltzeko.



Roberto Bissio

## Rio+20 hasi baino ez da egin

*Roberto Bissio*

**INSTITUTO DEL TERCER MUNDOKO ZUZENDARIA ETA LATINOAMERIKAKO RED DEL TERCER MUNDOKO ORDEZKARIA**

Rio+20k garai hartan eginiko konpromiso politikoak berretsi behar zituen, eta beste ekintza-plan batzuk aurkeztu, aurre egiteko gaur egungo krisiei, duela hogei urte baino larriagoak baitira. Goi-bilera egin zenean, mundua finantza-krisi batean murgilduta zegoen, langabezia gora eta gora, ingurumen-arazoak larriagotzen —bereziki, uholdeak ugaritzen, eta lehorteak larriagotzen—, biodibertsitatea galtzen, eta elikadura-segurtasun eza eta klima-aldaketa pil-pilean. Garapen iraunkorraren eta haren hiru dimentsioen, hots, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren, krisiaren parte da hori guztia.

Tamalez, goi-bilera garai txarrean iritsi zen; izan ere, badirudi herrialde garatuek eta garapen-bidean dauden herrialdeek gero eta gaitasun gutxiago dutela oinarrizko gaiei buruz elkar ulertzeko.

Prentsak publikoari sentiarazi zion hitzaldiak, mahai-inguruak eta Rio Centro biltzar-jauregi erraldoiko eztabaida-taldeak lider politikoentzako zeremonia baten parte zirela, eta, aldi berean, krisi-garaietan hartu beharreko erabaki zorrotzak alde batera uzten eta geroratzen ari zirela.

Rio+20 Goi Bileran, agiri bat onartu zuten, “Nahi dugun etorkizuna” deritzona. Bertan, ez dago ezer berririk premiazko ekintzei dagokionez. Duela hamar edo hogei urte hitzartutakoa berretsi zuen, eta aditzera eman Nazio Batuetan jarraituko zutela elkarrizketak egiten, instituzioak indartzeko, garapen bidean dauden herrialdeei teknologia nola transferitu eta teknologia hori nola finantzatu aztertzeko eta garapen iraunkorraren arloan beste helburu batzuk ezartzeko.

Egia da ez zela aurrerapausorik eman premiazko zereginetan, baina, hala ere, ez zen izan askok iragarritako porrota.

Goi-bilerak benetan porrot egin zezakeela ikusita, ia berrehun herrialdetatik etorritako funtzionarioek testu bat egin zuten, azken unean egin ere, porrota saihestearren. Testu horretan, konpromiso batzuk jaso zituzten, lider politikoak iritsi aurretik hartutakoak, hain zuzen ere. Garapen iraunkorrari gagozkiola, multilateralismoa kolokan jarri zen, eta, beste behin ere, bizirik irten zen.

Ondoriozko agiria akordio bat izan zen; hots, gutxieneko baldintza batzuk betetzeko akordioa, goi-bilerak porrot egin ez zezan. Izan ere, kontuan

hartu behar dugu nazioarteko lankidetza okerrerako bidean zela eta herrialde garatuek gogor borrokatu zutela beren jarrerak defendatzeko.

Ekin eta ekin aritzea zeregin frustragarria eta ustez itxaropenik gabekoa dela iruditu arren askotan, azkenean, garapen bidean dauden herrialdeak gailendu egin ziren zenbait gaitan.

Amaierako saioan, ekainaren 22an, Brasilgo presidente Dilma Rousseff-ek ondoriozko agiriari buruz esan zuen urrats historikoa zela garapen iraunkorra lortzeko bidean. Haren esanetan, ez da muga, ez eta sabaia ere, baizik eta "abiapuntua", garapen iraunkorrerako bidea eraikitzeko. Bide horrek asmo handikoa izan behar du, bai eta hurrengo belaunaldien ondare ere.

Bi egun lehenago, biltzarreko negoziazioak berdinduta zeuden, batetik, "ekonomia berdea" kontzeptua —kontzeptu berria bera— sartzeak hainbat zalantza eragin zituelako, eta, bestetik, herrialde garatu batzuek ez zutelako berretsi nahi "erantzukizun komun baina bereizi"en printzipioa, 1992an onartutakoa. Horrek esan nahi du, batetik, ingurumen-gaietan denok egin behar dugula zerbait, eta, bestetik, herrialde garatuek are gehiago egin behar dutela; izan ere, baliabide eta aukera gehiago dituzte eta, historikoki, haiei dagokie hein handiago batean arazoak sortzearen erantzukizuna, industria-iraultzaz geroztik neurrigabe erabili baitituzte natura-baliabideak.

Negoziazioetan, Estatu Batuek esan zuten ezin zutela onartu "erantzukizun komun baina bereizi"en printzipioa, eta agiritik kentzeko eskatu zuten. Herrialde garatu ia denek argudiatu zuten Rioko printzipioak ezin direla banan-banan hartu eta printzipio hori aintzatetsitzat joko zela, agirian printzipioei buruz egingo zen erreferentzia orokor baten bidez. Horrek asko kezkatu zituen garapen bidean dauden herrialdeak, 77en taldea osatzen dutenak (berez, 132 herrialde dira), bai eta Txina ere. Txina, berez, ez da talde horretakoa, baina talde horretako herrialdeekin koordinatzen ditu bere jarrerak. Herrialde horientzat, Rio+20ko gauzarik garrantzitsuena zen argi eta garbi berrestea "erantzukizun komun baina bereizi"en printzipioa eta, oro har, Rioko lehenengo goi-bilerako printzipioak.

Estatu Batuek ia azken egunean eman zuten amore. Amaierako agiriko 15. paragrafoan, Rio 92ko Goi Bilerako printzipioak berresten dira; bereziki, "erantzukizun komun baina bereizi"en printzipioa. Horretaz gainera, "gogorarazten" da printzipio hori eta ekitatea direla mundu mailako klima-sistemaren ekintza-oinarri. Garapen bidean dauden herrialdeentzat, garaipena izan zen.

"Ekonomia berdea" izan zen bigarren gai polemikoa. Rio+20ko lehentasunezko gaietako bat izan zen, hain zuzen ere. Arazoa da termino horrek ez duela definizio bateraturik; hots, nazioartean onartutako definiziorik. Garapen bidean dauden herrialdeak beldur ziren "ekonomia berdea" kontzeptuak ez ote zuen ordeztuko "garapen iraunkorra", eta ez ote zen ingurumenaren eta garapenaren arteko loturaren paradigma giltzarri bilakatuko, Rio 92ko Goi Bileran hitzartutakoa bertan behera uztea ekarriko bailuke horrek. Halaber, beldur ziren ez ote zuten "ekonomia berdea" erabiliko protekzionismo komertzialaren oinarritzat edo laguntzak emateko mugak ezartzeko oinarritzat.

Urtebetez negoziazio zailak izan ostean, amaierako agirian "ekonomia berdea"ri buruzko atal luze bat sartzea erabaki zuten. Atal horren arabera, garapen iraunkorra lortzeko tresnetako bat

*Amaierako agiria oberresten da "erantzukizun komun baina bereizi"en printzipioa. "Gogorarazten" da printzipio hori eta ekitatea direla mundu mailako klima-sistemaren ekintza-oinarri.*

da “ekonomia berdea”. Ez da arau-multzo zurrun bat. “Ekonomia berdeak” hamasei printzipio ditu, eta, printzipio horietan, erreferentzia esplizituak daude, protekzionismo komertziala eta laguntzak emateko mugak saihesteari buruzkoak.

“Garapen Iraunkorraren Helburuak” dira Rio+20ko hirugarren gaia. Helburu horiek ideia gisa onartu ziren, eta gobernu arteko lan-taldeari bidali, garapen iraunkorrak zer helburu izan behar dituen zehaztu zezan. Herrialde garatuek —bereziki, Europakoek— zerrenda zehatz bat proposatu zuten, ingurumenaren arloko helburuak jasotzen zituena, eta etsita zeuden Rio+20k helburu horietako batzuk onartu ez zituelako. Garapen bidean dauden herrialdeek argudiatu zuten ez zutela astirik izan helburu horiek zein izango ziren adosteko eta adierazi zuten beldur zirela ingurumen arloko helbururen bat aipatzeak ez ote zuen oreka hautsiko eta ekonomiaren eta gizartearen arloko helburuak neurrian sartzea eragotziko.

Garapen iraunkorrerako esparru instituzionala da laugarren gaia. Biltzarrean hitzartu zuten Nazio Batuen Ingurumenerako Programa (NBIP) indartzea eta hobetzea (Nairobin dago programa horren egoitza), eta, horretarako, hauxe proposatu zuten: Administrazio Kontseiluko kideak mundu osokoak izatea eta finantziazio handiagoa lortzea. Dena den, bertan behera gelditu zen programa hori erakunde espezializatu bilakatzeko proposamena.

Rio 92ko Goi Bileraz geroztik, NBEko Ekonomia eta Gizarte Kontseilu baten azpibatzorde bat, Garapen Iraunkorraren Batzorde deritzona, urtero-urtero biltzen hasi zen, hitzartutakoa betetzen ote den ikusteko. Garapen Iraunkorraren Batzordea eraginkorra izango ez zelakoan, aldatzea proposatu zuten, eta Garapen Iraunkorraren Kontseilua sortzea, baina, azkenean, goi-mailako foro politiko bat eratzea erabaki zuten, ministroak aldizka-aldizka bilduko zituena, baina akordio negoziaturik gabe. Espero dugu foro horrek lidergo politikoa ematea, bai eta agenda zehaztea eta aldizka-aldizka elkarrizketa egiteko bide ematea ere. Foroak hau guztia egin behar du: kontuan hartu garapen iraunkorrarekin lotutako arazo berriak, konpromisoak betetzeko ematen diren aurrerapausoak aztertu eta horien jarraipena egin, eta Nazio Batuen sistemaren baitan koordinazioa hobetu.

Instituzioek nekez abiarazten dute biltzar politikoetan hitzartutakoa. Arazo hori gertatzen da Rioko biltzarretan, bai eta azken hogei urte hauetako adierazpen eta ekintza-plan guztietan ere. Foroak agenda zabal bat taxutzen badu, ekiteko adinako indarrez agintzen badu, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko prozesu dinamiko bat abiarazten badu, idazkaritza ahalduna badu eta laguntza politiko handia badu, baliteke Rio+20ko amaierako agiri xumea prozesu zinez berritzaile bilakatzea.

Iragarpenek, ordea, ez dute adore ematen; batez ere, herrialde aberatsek uko egin ziotelako Rion beste edozein konpromiso zehatz hartzeari, garapen bidean dauden herrialdeei finantziazioa eta teknologia emateari buruzko gai giltzarrietan. Hain zuzen ere, uko horren erruz esan zuten askok biltzarra “porrota” izan zela; izan ere, biltzarraren emaitzetan ez dago ekintza zehatzik.

Goi-bilera egin aurreko egunetan, teknologiak transferitzeko atalean, Estatu Batuek, Europar Batasunak, Kanadak eta Australiak adierazi zuten ez zutela nahi testuan teknologiaren transferentziari buruzko inolako erreferentziarik agertzea.

“Garapena eta teknologiaren transferentzia” zen bilerako presidentekideek eginiko testuaren jato-

rrizko izenburua. Estatu Batuek —Kanada eta Australia lagun zituztela— “transferentzia” hitza ezabatu nahi zuten, eta izenburua aldatu, honela: “Zientzia, berrikuntza eta teknologiaren garapena”. Herrialde horiek proposatutako testuaren arabera, teknologiaren transferentziak “borondatezkoa” izan behar du, eta “elkarrekin adostutako baldintzen araberakoa”. Horrek, ordea, ez die onurarik ekarriko garapen bidean dauden herrialdeei; are gehiago, behartu egingo ditu bere horretan onartzera eskubideekin lotutako ohiturak, patenteei buruzko merkataritza-akordioak eta patente horien erabilera —merkataritza-hitzarmenen bidezkoa—; horrexek esan nahi du, hain zuzen ere, “elkarrekin adostutako baldintzen araberakoa”. Europar Batasunak, halaber, beste izenburu bat nahi zuen, eta hauxe proposatu zuen: “Ikerketa, berrikuntza eta teknologia-garapena”. Antza denez, bi bloke horiek desagerrarazi egin nahi zuten “teknologiaren transferentzia” kontzeptua.

Azkenean, goi-bilera amaitzear zela, Estatu Batuak idazki bat onartu zuen, Johannesburgoko Rio+10 Goi Bilerako teknologiari buruzko testua “gogorarazten” zuena. Idazki horretan, teknologia transferitzea gomendatzen zen, eta herrialde hartzaileen aldeko baldintzak ezartzen.

Finantziazio-arloari dagokionez, herrialde garatuek indargabetu egin zituzten aurretik hartutako konpromisoak eta uko egin zioten ohiko termino hauek erabiltzeari: “finantza-baliabide berriak eta osagarriak”. Bestalde, agirian, “hainbat iturritako” funtsak lortzea aipatzen da, bai eta “garapenerako lankidetza berriak” egitea ere; beste hitz batzuetan esanda, ekarpena (eta zenbatekoa) txikiagoa izango dela.

Itxurak gordetze aldera, erabaki zuten Nazio Batuetan eztabaida bat hastea, garapen iraunkorra finantzatzeko estrategia bat ezar daitekeen ikusteko.

Neurri apalak dira, eta nekez sinetsaraziko diete garapen bidean dauden herrialdeei bitartekoak (finantziazioa eta teknologia) lortuko dituztela Rion hitzartutako ingurumeneko eta garapen iraunkorreko obligazioak betetzeko.

Herrialde garatuek ez diote eutsi duela hogei edo hamar urte eginiko konpromisoen mailari. Garapen bidean dauden herrialdeek, aldiz, kontzesio handiak egin dituzte: oso dokumentu ahula onartu dute. Kontzesio politiko hori egin ezean, Rio+20k ez zuen emaitzarik izango.

Martin Khor-ek, The South Center (Hegoaldeko Zentroa) erakundeko zuzendari eta Third World Network (Hirugarren Munduko Sarea) erakundeko fundatzaile denak, hauxe esan du: “Zernolako erantzuna duen, horren araberakoa da, azken batean, edozein biltzarren arrakasta”. Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Goi Bilerak etsipena eragin diezaguke, edo gauza berri baten hasiera bilaka daiteke. Alde horretatik, Rio+20 ez da amaitu, hasi besterik ez da egin. Horixe esan zuen Brasilgo presidenteak, amaierako saioan.

## Berde nahi zaitut, berde! Zer dagoen jokoan Rio+20n

*Jerónimo Aguado Martínez*

**NEKAZARIA ETA PLATAFORMA RURALEKO KOORDINAZIO-TALDEKO KIDEA**



Jerónimo Aguado

Atsegin nuke jakinaraztea Rio 92ko Nazio Batuen Biltzarra mugarri izan zela, ingurumena hobetzeari dagokionez, eta garapen iraunkorra,



*Hogei urte igaro dira, eta inork ez du eztabaidan jartzen Rio 92n hartutako erabakiak bete ez izana, ez eta nola aldatu ekonomia-, finantzaeta elikagai-krisien kausak ere.*

**Argazkia:** Ainhoa Martín

biltzar hartan sortutako kontzeptu hori, errealitate bilakatu dela, eta han hitzartutako konpromisoak ospakizun-arrazoi direla, munduko estatu guztiek beren proposamen politikoak bete dituztelako.

Baina ez da halakorik gertatu. Nazio Batuek Rio+20 deritzon biltzarra egin baino hilabete lehenago, munduko herriok ez genuen ikusten emaitza positiborik, ez eta aurrerapausorik ere gure planetaren ingurumen-baldintzak hobetzeko eta garapen orekatuaren eta iraunkorraren ereduak hezurmamitzeko.

2012ko ekainaren 20an, 21ean eta 22an, gure gobernariak berriro bildu ziren, Rio de Janeiron, itxurakeriak egiteko garapen-eredua bideratzeko premiari buruz, begien bistako ingurumen-hondamendiak bultzatuta-edo, baina natura-baliabideak eta ondare komunak irensten dituztenen jokabideak eta bizimoduak batere ukitu gabe, jakina. Hogei urte igaro dira, eta inork ez du eztabaidan jartzen Rio 92n hartutako erabakiak bete ez izana, ez eta nola aldatu ekonomia-, finantzaeta elikagai-krisien kausak ere. Rio+20n, "ekonomia berdea" izen engainagarria duen propo-

samen-sorta izan zen eztabaidagai nagusia, bai eta ingurumen-esparruan nazioarteko gobernu-sistema berri bat ezartzea hura bideratzeko ere.

Nahita, ez zuten kontuan hartu kapitalismoa dela krisi guztien benetako egiturazko kausa, hark, mendekotasuna ziurtatzeko darabiltzan baliabide klasiko eta berrituekin batera, aberastasuna kontzentratzen baitu, eta gizarte-desberdintasunak, langabezia eta herrien aurkako indarkeria sortzen baititu, eta hori salatzen duten pertsonak kriminalizatzen.

Gaur egungo ekoizpen- eta kontsumo-sistemak honako ondorio hauek sortzen eta areagotzen ditu: berotze orokorra eta klima-krisia; gosea eta desnutrizioa; basoak eta biologia-, gizarte- eta kultura-dibertsitatea galtzea; kutsadura kimikoa; edateko ur falta; gero eta lur gehiago basamortu bihurtzea; itsasoak azidotzea; lurrak gutxi batzuen eskuetan egotea; eta biziaren alderdi guztiak salgai bihurtzea hirietan eta landa-eremuetan.

“Ekonomia berdea”, izenak besterik iradoki nahi duen arren, metatze-prozesu kapitalistaren beste fase bat da. “Ekonomia berde” horretan, ezerk ez du zalantzan jartzen edo ordezten erregai fosilen erauzketa mugagabean oinarritutako ekonomia, ez eta ekonomia horren kontsumo-ereduak eta industria-ekoizpena ere; aitzitik, “ekonomia berde” horrek beste esparru batzuetara zabaltzen du jendea esplotatzen duen ekonomia, eta hazkunde ekonomikoa mugagabea delako mitoa indartzen.

Huts egin duen eredu ekonomikoak —orain berdez mozorrotua ageri denak— merkatuaren arauen eta teknologiaren nagusitasunaren mende jarri nahi ditu naturaren bizi-ziklo guztiak; natura eta haren funtzio guztiak pribatizatu eta salgai bihurtu nahi ditu, bai eta jakintza tradizionalak ere, eta finantza-merkatu espekulatzaileak zabaldu nahi ditu, karbono-merkatuak, ingurumen-zerbitzuak, biodibertsitateagatiko konpentsazioak eta REDD+ mekanismoa (isuriak murriztea, deforestazioa saihesteagatik eta basoak hondatzeagatik) baliatuz.

Nekazari-munduari dagokionez, Rio+20k are garrantzi handiagoa eman dio elikadura-sistema agroindustrialari, klima-, ingurumen-, ekonomia-



**Argazkia:** José Antonio Pérez Roque

eta gizarte-krisien eragile nagusietako bat den sistema horri, eta horrek elikagaien espekulazioa areagotu du, eta agronegozioko korporazioen interesak bultzatu, tokian tokiko herritarren, nekazarien eta herrialde indigenen eta tradizionalen ekoizpenaren kaltetan.

Edonola ere, Rio+20k aurrez aurre izan zituen, batetik, gizarte-mugimenduak, gizarte zibilaren ordezkari gisa, eta, bestetik, La Vía Campensina, munduko nekazarien ordezkari gisa. Gaur egungo ekoizpen- eta kontsumo-eredua sakon aldatzeko prozesu baten alde egin zuten; zehazki, bestelako eredu batzuen arabera garatzeko dugun eskubidea aldarrikatu zuten, herrien errealitate eta esperientzia ugari, askotariko eta benetan demokratikoetan oinarrituta, gizakien eta taldeen eskubideak errespetatuz, naturarekin bat etorriz eta gizarte- nahiz ingurumen-justizia bermatuz.

Diruak —berdez jantzita edo ez— zer alimaleko balio duen ikusirik, proposatu zuten denon artean bestelako eredu batzuk eraikitzea, oinarri hauek hartuta: elikadura-burujabetza, agroekologia eta elkartasunezko ekonomia, biziaren eta ondare komunen babesa, eskubide mehatxatu ororen aintzatespena, lur- eta lurralde-jabetzaren eskubidea, hirian bizitzeko eskubidea, natura-eskubideak eta hurrengo belaunaldien eskubideak, eta inperialismoaren eta kolonialismoaren forma oro ezabatzea.

Berde nahi zaitut, berde. Milaka pertsonak halaxe ikusi nahi dute gure planeta, gaur egungo garapen-ereduaren erruz gris bilakatu dena. Nahasi egingo al da, orain arte bezala, Rio+20n bultzatu nahi izan zuten “ekonomia berdea” giza sufrimenduen ondorioz isuritako odol-ibaien kolore gorriarekin? Bazter utziko al dugu gizakiok bizitzeko behar dugun berdetasuna? Horren beldur gara.

# 4

# Aldaketaren aldeko beste ahots batzuk: nahi ditugun agendak






**Argazkia:** Fundación Ipade

Hauen ekarpenetan oinarrituta: Concepción García-Herrera *(ACSUR-Las Segovias)*, Cristina Monge *(ECODES)*, Eva María Vicente *(Fundación IPADE)*, Gerard Vives *(Beyond 2015 kanpaina)*, Leida Rijnhout *(The Northern Alliance for Sustainability-ANPED)*, Lúcia Ortiz *(Friends of the Earth-Brasil)*, Maitet Ledesma *(IBON International)*, Pablo Martínez *(Plataforma 2015 y más)*, Rosa Lago *(Ekologistak Martxan)*, Sascha Gabizon *(Women in Europe for a Common Future-WECF)*, Seydou Wane eta Filomeno Barbosa *(FODDE Senegal eta APRODEL Guinea Bissau)* eta Xavier Longan *(Milurteko Kanpaina - Nazio Batuak)*.

Rio+20ko Goi Bileraren harira egindako “Rio+20 ondoren: hori da nahi dugun etorkizuna?” mintegian, hainbat hausnarketa eta proposamen egin zituzten garapen- eta ingurumen-arloko mundu mailako agendei dagokienez, eta hainbat pertsonaren ahotsak entzun genituen. Pertsona horiek hainbat lekutakoak dira (Afrika, Asia, Latinoamerika eta Europa), eta hainbat ikuspegi eta jarrera dituzte.

Erakunde horiek helburu bera dute: gizarte- eta ingurumen-justizia handiagoa lortzea, iraunkortasunerako ekimenak abiaraziz tokian-tokian eta mundu mailan.

Oro har, Rio+20ren emaitzei dagokienez, gizarte-erakundeek oso jarrera kritikoak dituzte. Rio+20 botila batekin alderatuz gero, esan dezakegu erdi hutsik dagoela, eta itxaropen-tanta batzuk dituela. Halaxe laburbildu zuen goi-bilera, hain zuzen ere, Leida Rijnhout-ek. Itxaropen-tanta horiek, funtsean, gizarte zibila mobilizatu izana da, eta Herrien Goi Bilera antolatu izana, Rio+20ren aldi berean.

Batzuek proaktibitate handiagoa eskatzen dute gizarte- eta politika-arloan; aurre egin nahi diote ekonomia-arloari, merkatuen kontrolpean dago eta. Esate baterako, Senegalen, nekazaritzako ustiategien % 95 familiartekoa da. Ustiategi horiek nazioko elikagai-eskariaren % 60 hornitzen dute, eta bertako biztanleen % 50 baino

gehiagori lan ematen. Hori horrela, 85 eremu identifikatu dituzte, elikadura-segurtasun eza izateko arriskuan daudenak. Ezinbestekoa da laguntza-neurriak ezartzea eta familiarteko ustiategien produktibitatea handitzea, erresilientzia- eta egokitzapen-gaitasun handia baitute.

Halaber, esan zuten iparraldeko herrialdeek laguntza gisa hegoaldera bidaltzen duten dolar bakoitzeko hegoaldeko herrialdeek 100 dolar itzultzen dituztela iparraldera. Horretaz gainera, gizarte-justiziarekin lotutako gaiak aipatu zituzten; esate baterako, pobrezia ezabatzeko planteamenduaz eta helburuaz gain, interesgarria izango litzatekeela aberastasuna murriztea —agian, aberats gutxiago egongo balira, pobre gutxiago eta gizarte-justizia handiagoa egongo litzateke—.

Ingurumen-gaiak ere eztabaidagai izan ziren, eta hausnarketa hau mahaigaineratu zuten: Nola eragiten die justiziak eta ingurumen-legeek dirusarrera handiagoak eta txikiagoak dituzten pertsonei eta enpresei? «"Nork kutsatu, hark ordaindu" printzipioa eta "nork ordaindu, hark kutsatu" printzipioa ez dira berberak». Horren bidez adierazi nahi da ingurumena kutsatzeagatiko zigorrek eragin eskasa dutela edo ez dutela eraginik; izan ere, maiz, onuragarriagoa izaten da kutsatzeagatik ordaintzea ez kutsatzeko neurri egokiak ezartzea baino. Interes ekonomiko batzuek indar egiten dute hori horrela izan dadin, eta egoera hori aldatzearren borroka egiten dutenek badakite heriotza-mehatxuak jaso ditzaketela eta erailak izan daitezkeela; are gehiago, askok mehatxuak jasotzen dituzte, eta asko erail egiten dituzte.

Horrelako beste hainbat gairi buruz hitz egin zuten. Kontua da Hegoaldeko herrialdeek eskubide gehiago nahi dituztela, ez gutxiago. Garaipen defentsibo gisa hartu dute Rio+20, eskubide batzuk defendatu ahal izan dituztelako (elikadura, ura, osasuna, hezkuntza, gizarte-babesa...). Dena den —Rio+20ko aldarrikapenetako bat aipatzearren—, ez zen aurrerapausorik eman emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak onartzeko, ez eta giza eskubideen ikuspegia garapen iraunkorrean txertatzeko ere.

Rio+20n, erruz hitz egin zuten "ekonomia berde"ari buruz, garapen iraunkorraren motortzat hartzen baitzuten. Erakunde asko oso kritikoak dira kontzeptu horrekin; izan ere, onuren ordez, oztopoak ekar ditzake "zinez nahi dugun etorkizuna" lortzeko; alegia, gizarte- eta ingurumen-justizia handiagoa izango duen etorkizuna lortzeko.

Gure ustez, gaur egungo garapen-ereduaren itxura-garbitze hutsa bilaka daiteke, eta ez ditu kontuan hartzen pobreziaren eta ingurumen-hondamendiaren kausak. Beharrezkoa deritzogu krisiaren kausetara jotzea eta paradigma politikoa, ekonomikoa eta soziala auzitara ekartzea.

Giza eskubideak garapen iraunkorraren esparrutik bereiztea ekar dezake "ekonomia berdeak", eta horrek hau guztia ekar dezake: enpresa handien interes korporatiboak eta finantza-interesak lehenestea, eta ez pertsonen eta ingurumenaren ongizatea; sistemaren mende jartzea natura, eta, horren ondorioz, herritarrek eskubideak galtzea; emakumeak kaltetzea, ekonomia monetarizatutik kanpo utziz; eta, horretaz gainera, oraindik ukitu ez diren eremuez jabetzea, hala nola, herri-lurrez.

Hitz batez, garapen-eredua hazkundean oinarrituko bada —eta, antza denez, halaxe izango da—, ez da iraunkorra izango, nahiz eta berdea izan.

*Iparraldeko herrialdeek laguntza gisa hegoaldera bidaltzen duten dolar bakoitzeko hegoaldeko herrialdeek 100 dolar itzultzen dituzte iparraldera*

Beste edozein sektoreri baino gehiago interesatzen zaio enpresa-sektoreari “ekonomia berdea” bultzatzea. Horren harira, Rio+20n kezka bat sortu zen. Kontuan hartuta Nazio Batuek gizarte zibilaren partetzat hartu dituztela enpresa handiak, arriskua da enpresa horiek eragina izatea eta interes-gatazkak sortzea lehen irabazi-asmorik gabeko erakundeei soilik zegokien eremuan.

Rio+20n parte hartu zuten gizarte zibileko erakunde askok Milurteko Garapen Helburuen (MGH) jatorria eta bilakaera aztertu dituzte, eta adierazi dute analisi oker batetik abiatu zirela eta gaur egungo garapen-ereduaren ondorioak arintzeko diseinatu zirela.

Alderdi batzuetan, MGHetan aurrerapausoak eman ditugu (esate baterako, haurren eskolatze-tasak gora egin du, eta egunean 1,25 dolar baino gutxiagorekin bizi direnen ehunekoak behera; 1990ean, % 47 zen, eta, 2008an, % 24); beste alderdi batzuetan, ordea, ez da aurrerapausorik eman, edo atzerapausoak eman dira[11].

Hona hemen MGHen ahulgune batzuk: ez dute bide ematen mundu mailako auzietan gobernantza-arloko hitzarmenak egiteko; ez diote genero-desberdintasunari heltzen; iraunkortasuna sektoretan banatuta dago, oso banatuta egon ere; pobreziaren eta ingurumenaren arteko loturak ikuspegi murritza du; gizarte zibilak gutxi parte hartzen du, batez ere helburu horiek diseinatzen; eta ez dago benetako gobernantza demokratikorik.

Orobat aipatu behar dugu garapen-agendak eta ingurumen-agendak elkarrengandik aldentzen ari direla eta gai horiek ez dutela ikuspegi osorik. Gogora dezagun Rio+20 hasi zen egun berean egin zela G20en Goi Bilera. Egoera hori, gizarte garen aldetik, onartezina da; izan ere, indarra eta eraginkortasuna kentzen dizkie gizarte- eta ingurumen-justizia handiagoa eskatzen duten aldarrikapenei.

Nazio Batuen ustez, beharrezkoa da eztabaida bat hastea 2015 osteko prozesuaren gainean. Horren harira, proposatzen dute, batetik, Milurteko Adierazpenean jasotako balioak abiapuntutzat hartzea, eta, bestetik, kontuan hartzea azken hamarkadan ondo irten diren gauzen bidez ikasitako irakaspenak. Nahi dute prozesua parte-hartzezkoa eta inklusiboa izatea eta ahalik eta eragile garrantzitsu gehien biltzea.

Bestalde, Garapen Iraunkorraren Helburuak honela definitu zituzten Rio+20an: helburu orokor batzuk, borondatezkoak eta mundu osoan aplikatzekoak, gaika antolatuak, epe, helburu kuantitatibo eta adierazle jakin batzuk dituztenak, garapen iraunkorra xede dutenak eta ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-arloen arteko loturak orekatzen eta agerian jartzen dituztenak. Helburuok aukera ematen diote gizarte zibilari parte hartzeko. Alde horretatik, negoziazioetan, funtsezkoa izan behar du gizarte zibilaren eginkizunak.

[11] NBE. (2012) Milurteko Garapen Helburuak. 2012ko txostena.
Jaisteko: http://www.un.org/spanish/millenniumgoals/pdf/mdg_2012_foreword_overview.pdf

*Gizarte zibileko erakundeok, politika-, gizarte- eta ekonomia-agendetan eragina izan dezakegula jabetuta[12], helburu hartu dugu agenda koordinatu bat sustatzea (Rio+20, 2015 ondoren, GIH). Agenda horrek ezaugarri hauek izango ditu:*

- Kontuan hartuko ditu genero- eta iraunkortasun-ikuspegia, eta giza eskubideetan oinarrituko da, oro har eta zeharka, eta ez, sektoreka;
- Desberdintasunak ezabatuko ditu, errotik ezabatu ere (generoa, diru-sarrerak, etab.);
- Helburu eta politika zehatzak izango ditu iraunkortasuna sustatzeko, eta tresnak eta adierazleak, jarraipena egiteko;
- Finantziazio egokia, bermatua eta arrazoizkoa. Ezin dira bereizirik egin garapen iraunkorraren agenda eta mundu mailako ekonomia-agenda;
- Indarkeriari eta gatazkei helduko die;
- Mekanismoak izango ditu, eragile guztien partaidetza bermatzeko, erantzunkidetasuna oinarri hartuta, baina denek erantzukizun berak izango ez dituztela;
- Kontuan hartuko du zaintzen ekonomia[13];
- Guneak izango ditu, prokomuna[14] antolatzeko;
- Adierazleak izango ditu, politikak lotzeko.

*Horretarako, ezinbestekoa da politikan eragin handiagoa izan ahal izatea. Halaber, garrantzitsua da zigortzeko eskumena izatea, agenda betetzen ez dutenean gobernuak zigorrik jaso gabe gera ez daitezen. Halaber, garapenarenari dagokionez, beste ikuspegi partekatu bat hartzearen alde gaude, "bizi ona"ren filosofian oinarritutakoa eta hau kontuan hartuko duena:*

- Gizartea sakon aldatzeko, ezinbestekoa da ekonomiaren ekoizpen-baliabideen jabetza, eskurabi dea eta kontrola erabat aldatzea eta birbanatzea, inori ez dakizkion uka duintasunez eta libre bizitzeko oinarrizko baldintzak.
- Ezinbestekoa da estatuko instituzioak eta gizarte-instituzioak demokratizatzea, gizarte-helburuak eta -lehentasunak merkatuek ezarri beharrean herritarrek ezar ditzaten, demokratikoki ezarri ere.
- Ezinbestean bideratu behar da gizakien premiak eta potentzialtasunak asetzea xede duen ekoizpe na eta kontsumoa, epe laburreko onurak maximizatu beharrean ingurumenaren mugak errespetatzeko.
- Beharrezkoa da gizabanakoaren eta naturaren arteko sinbiosia errespetatzea eta ulertzea; orobat da beharrezkoa natura ez hartzea eta merkaturatzea baliabideak eskuratzeko eta zaborra botatzeko bitartekotzat.

[12] «Eragina izateko txikiegia zarela uste baduzu, zoaz ohera gelan eltxo bat duzula eta saiatu lo egiten.» Anita Roddick.
[13] Zaintzen ekonomia: ekintza, ondasun eta zerbitzu material zein sozialen eremua, beharrezkoa dena ugaltzeko eta gizakien biziari eusteko: elikadura, osasuna, afektua, hezkuntza eta bizi-ingurune egokia (Boliviako Hitzarmenaren definizioa). Iturria: "Contexto de la Política Actual de Igualdad de Género y Desarrollo: ¿qué lugar ocupará la Cooperación Española y la Sociedad Civil?" txostena. Jaisteko: http://www.mueveteporlaigualdad.org/docs/contexto%20actual_castellano.pdf
[14] Prokomun: termino horrek aspaldiko ideia bat adierazten du; hain zuzen ere, ondasun batzuk denonak direla, eta baliabide-multzo bat osatzen dutela, eta baliabide horiek

## IKUSPEGIAK GAIEZ GAI

Hauen ekarpenetan oinarrituta: **Alberto Guijarro** *(ONGAWA)*, **Celia Barbero** *(Fundación IPADE)*, **Concepción Piñeiro** *(Altekio)*, **Concepción Quintana** *(FRM)*, **Héctor de Prado** *(Amigos de la Tierra)*, **Monika Hernando** *(UNESCO Etxea)* eta **Nuria Tovar** *(ICID)*.

Bilboko eta Madrileko mintegietan, bigarren egunean, zenbait aurkezpen labur eta inspiratzaile izan genituen, bost arlo nagusi hauen gainean: elikadura eta ura; giza eskubideak; kontsumo eraldatzailea; mundu mailako ingurumen-erronkak; eta energia (Madrilen soilik jorratu zuten azken gai hori).

Aurkezpen horietan, beren mintzaldien bidez gu inspiratzera gonbidatu genituen pertsonek, hasteko, gauzak oro har nola dauden jakinarazi ziguten gai aukeratu horiei dagokienez, eta, gero, gai horietako bakoitzari heldu zioten, eta zer arazo espezifiko dauden azaldu, partaideen hausnarketa bateratua oinarri hartuta. Gero, lanerako proposamen zehatzak egin zituzten.

Aditzera eman zuten gizarte zibilak zer kausa, jarrera politiko eta aldarrikapen nagusi hartzen dituen beharrezkotzat errealitateok aldatzeko eta zinez nahi dugun eta egingarria den mundu horri bide egiteko.

Bost arlo horiek aukeratu genituen, arlo garrantzitsuentzat hartzen baitititugu, garapen zinez iraunkorra, bidezkoa eta bideragarria lortzeari begira. Horretaz gainera, gizarte-mugimenduak eta -erakundeak aspalditik ari dira gai horiek lantzen, eta jada bidea egina dute, gai horien ezagutzari eta gai horiei buruzko proposamenei dagokienez.

Jarraian, aurkezpen horietako ideia nagusiak jasoko ditugu.

### *Elikadura eta ura*

1.000 milioi pertsona baino gehiago gose da, eta, berez, munduko biztanleria asetzeko beharrezkoa den elikagai kopurua halako bi ekoizten dugu. Horretaz gainera, 800 milioi pertsonek ez dute edateko urik, eta, egunean, 5.000 pertsona hiltzen dira gabezia horrek eragindako gaixotasunengatik.

Hori gertatzen da elikagaiak merkantziatzat hartzen direlako, eta ez, giza eskubidetzat. Horren ondorioz, elikagaiak lehengaien merkatuen arauen mende daude, eta merkatu horiek gero eta arau eta kontrol gutxiago dituzte. Nekazaritza-arloko politikak enpresa handientzat eta lurjabeentzat dira onuragarriak. Horren eraginez, nekazari eta abeltzain txikiek lekuz aldatu behar izaten dute, eta lanbidea utzi.

Horiek horrela, hau eskatzen dugu: lehengaien merkatuak gehiago kontrolatzeko, elikagaiak izateko giza eskubidea errespetatze aldera; babes-neurriak ezartzeko, lurren akaparamenduari aurre egite aldera; eta familien ekimenak edo neurri txikiko ekimenak bultzatuko dituzten politikak egiteko.

Garapenerako nekazaritza-ezagutzaren, -zientziaren eta -teknologiaren nazioarteko ebaluazioak (IAASTD) esan duenez, eskala handiko nekazaritza industriala ez da iraunkorra, petrolio merkearen mende baitago. Halaber, “Arrakasta lortzeko bideak”[15] deritzon txostenean, FAOk esan du familiarteko nekazaritza bultzatzea dela nekazaritza-munduan dagoen pobreziatik eta

modu aktiboan babestu eta kudeatu behar ditugula, guztion onaren alde. Prokomuna osatzen dute oinordetzan hartzen ditugun gauzek, bai eta elkarrekin sortzen ditugunek eta hurrengo belaunaldiei oinordetzan utziko dizkiegunek ere. Iturria: MediaLab Prado.

[15] FAO. (2009). Pathways to success. Success stories in agricultural production and food security.
Jaisteko (ingelesez): http://www.fao.org/fileadmin/user_upload/newsroom/docs/pathways.pdf

gosetik irteteko bide onena eta errentagarriena.

Ura da ondasun komunen eta nahitaezkoen artean nagusia, baina, giza eskubidetzat hartu beharrean, ondasun ekonomikotzat hartzen dugu. Arlo horretan, politika ezegokiak daude, eta politika horiek, bai eta ur-baliabide eskasiak, gainustiapenak eta kutsadurak ere, egoera hori bultzatzen dute. Hori horrela, uraren kudeaketak kontuan hartu behar ditu iraunkortasuna eta giza eskubideak.

Amaitzeko, herritarrei eskatzen diegu modu aktiboan parte hartzeko aldarrikapen politiko horietan.

## *Giza eskubideak*



Jabetzen gara gaur egun hainbat eta hainbat giza eskubide urratzen direla. Hori horrela, esan dezakegu giza eskubideak ez direla kontzesio bat, ez eta lorpen itxi eta behin betiko bat ere, baizik eta salaketa-tresna garrantzitsuak.

Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioen bulegoaren arabera, lege-berme unibertsal gisa defini daitezke giza eskubideak. Berme horiek gizaki guztiei dagozkie, eta gizabanakoak edo/eta taldeak babesten dituzte, duintasunaren aurkako ekintzen edo/eta ez-egiteen kontra.

Giza garapena eskubidetzat hartzen badugu edo giza eskubideen ikuspuntuaren arabera bideratzen badugu —behinik behin—, horrek bestelako ikuspegi eta eskakizun batzuk ekarriko dizkio garapenerako nazioarteko lankidetzari. Orain, galdagarritasunaz, herritartasunaz, partehartzeaz, berdintasunaz eta kontuak emateaz mintzo gara. Horrek esan nahi du, garapenari dagokionez, beste paradigma bat behar dugula, eta lan-metodologia eta ikuspuntu berriak: giza eskubideen ikuspuntua.

*Ikuspuntu horrek hiru oinarrizko baldintza jaso behar ditu:*

- Politikak eta programak egitean, giza eskubideak lortzea izan beharko da helburu nagusia;

- Eskubideak nork dituzten identifikatu beharko da, bai eta zertarako duten eskubidea ere. Halaber, eskubide horiek dakartzaten betebeharrak eta obligazioak identifikatu beharko dira, eta, aldi berean, eskubideak dituztenek eskubide horiek aldarrikatzeko duten gaitasuna indartu beharko da;

- Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Zuzenbidearen printzipioek eta arauek bideratu behar dute garapenaren lankidetza- eta programaziolan guztia, sektore eta fase guztietan.

Giza eskubiderik gabe ez dago garapenik; hortaz, pertsona guztien giza eskubideak betetzea da garapena.

Herritarrek gehiago jakingo balute giza eskubideei eta haien tresnei buruz, aukera izango lukete giza eskubideak baliatzeko, bere egiteko eta indar handiagoz aldarrikatzeko. Ahalduntze-ekintza bat izango litzateke hori, eta ahalduntze-ekintza horrek kontuan hartu beharko lituzke unibertsaltasuna, zatiezintasuna eta giza eskubideen arteko lotura.

Hona hemen proposamen zehatz batzuk, gizarte antolatuak egin ditzakeenak, Nazio Batuen sistemaren bidez:

> *Giza garapena eskubidetzat hartzen badugu, horrek bestelako ikuspegi eta eskakizun batzuk ekarriko dizkio garapenerako nazioarteko lankidetzari.*

- Estatuei eskatzea haiek berretsi dituzten konpromisoak betetzeko.

- Hitzarmen bat berrets dezatela bultzatzea.

- Estatu kideak kontrolatzea, txostenak aurkezteko obligazioa bete dezaten.

- Txostenak eta materiala bidaltzea.

- Banakako salaketa bat aurkeztea hitzarmenak egin dituzten organoei.

- Giza eskubideen konpromisoei erantzute aldera, estatu guztiek abiarazi dituzten neurriak aztertzea, lau urtetik behin egiten den Aldizkako Azterketa Unibertsalaren bidez.

## *Kontsumo eraldatzailea*

Gure bizitzan, eguneroko gertakari bat da kontsumoa: garraioa, elikadura, energia, hondakinak, ura, arropa, etxebizitza, etab. Egitura-ardatz bat da, gure premiak asetzeko baliatzen ditugun bizimoduena eta ekoizteko, banatzeko, kontsumitzeko eta hondakinak kudeatzeko ereduena. Horregatik, ezinbestekoa da kontsumoaren gainean hausnartzea eta ekitea.

Kontsumoa eskubide bat da, baina ez dago ekitatiboki banatuta geografiari, denborari, generoari eta gizarte-mailei dagokienez.

Iraunkortasuna, gizarte-justizia, ekitatea eta halako irizpideak aplikatzen dituzten kontsumitzeko moduez mintzo garenean, lotura jakin bat egon ohi da kontsumo arduratsuaren eta norbanakoaren aldaketaren artean. Horregatik, testuingurua ulertzeko, ezinbestekoa da, batetik, gaur egungo politika publikoek zer kontsumo-mota bultzatzen duten jakitea, eta, bestetik, kontsumo-aldaketak norbanakoaren aukera moraltzat edo etikotzat hartzea. Horretarako, egitura- eta gizarte-aldaketak behar ditugu.

*Kontsumoari dagokionez, hona hemen gizarte-erakundeen eta -mugimenduen eskaera nagusiak:*

- Auzitan jartzea eta aldatzea gaur egungo ekoizteko, banatzeko, kontsumitzeko eta hondakinak kudeatzeko eredua, kapitalista, patriarkala eta arrazista baita. Menderatze-eredu horrek aberastasuna pilatzea eta boterea gutxi batzuek izatea bultzatzen du, eta, horrek pobrezia eta esplotazioa dakarkie emakumeei, haurrei, herri indigenei eta herrialde ahulei. Hainbat eskaera zehatz egin dira, etiketak aldatzeko, bai eta ekodiseinuaren, politika- eta lege-esparruaren, enpresen gizarte-erantzukizunaren araubidearen, produktuen arrasto ekologikoaren gardentasunaren eta abarren baldintzak aldatzeko ere.

- Kontsumoaren murriztea eta nahikotasuna[16] bultzatzea, eta ez eraginkortasuna soilik.

- Komunikazioaz eta hezkuntzaz gain (horien ikuspegia nabarmen hobetu behar dugu), beharrezkoa da araubidea eta pizgarri fiskalak bermatzea, kontsumo iraunkorra bultzatzeko eta ingurumenean eta gizartean eragin negatibo handia duten sektoreei laguntzak eta pizgarriak kentzeko.

- Kontsumoaren eremuetan, eskaera zehatzak daude; esate baterako, elikaduraren arloan, elikadura-burujabetza.

- Oro har, koherentzia handiagoa eskatzen zaie

[16] Nahikotasunaren helburua da baliabide gutxiago kontsumitzea, ondasun gutxiago eskatuz. Horixe esan du Manfred Linz-ek, Wuppertal institutuko ikerlariak (nahikotasun ekologikoari eta bizi kalitateari buruzko ikerketa-proiektua zuzentzen du, institutu horretan)

instituzioei eta enpresei, bai eta gizarte-ehunari ere: alegia, eguneroko jardunean, esana egia egitea.

## *Mundu mailako ingurumen-erronkak*

Mundu mailako hiru gizarte- eta ingurumen-erronka izango ditugu hizpide: biodibertsitatea galtzea, basamortutzea eta klima-aldaketa. Arazo horien kausetako batzuk, gizakioi lepora dakizkigun kausei gagozkiela, partekatuak dira; hala nola, merkataritza-arloko ekonomia-politika maltzurrak, presio demografikoa, pobrezia eta baliabide-banaketaren ekitate eza, eta lurra norena den ez zehaztea.

*Halaber, faktore jakin batzuek areagotu egiten dituzte arazo horiek; hala nola:*

- BIODIBERTSITATEA GALTZEA:
  - Kontsumo-ereduak.
  - Azpiegiturak.
  - Habitatak aldatzea.
  - Gainustiapena.
  - Espezie inbaditzaileak.
  - Kutsadura.

- BASAMORTUTZEA:
  - Gainlarratzea.
  - Deforestazioa.
  - Nekazaritza-erabilera ezegokia.
  - Industrializazioa, urbanizazioa eta azpiegiturak eraikitzea.

- KLIMA-ALDAKETA:
  - Industrializazioa.
  - Erregai fosilak kontsumitzea.
  - Lurra beste era batera erabiltzea.

Uste dugu erronka horiek gizarte guztiei eragiten dietela, Iparraldeko herrialdekoei nahiz Hegoaldekoei, eta ezinbestekoa dela irmo jokatzea erronka horiei aurre egiteko eta alternatibak bilatzeko, hots, giza ongizatea bideragarri egin eta erronken aurka borroka egiteko irtenbideak ekarriko dituzten alternatibak bilatzeko.

*Hona hemen gizarte-erakundeen eskaera nagusiak:*

- Erantzukizun komunak baina bereiziak. Herrialde guztiek ez dituzte arazo horiek hein berean eragin; hortaz, herrialde bakoitzari erantzukizunkuota jakin bat dagokio. Iparraldeko herrialdeei erantzukizun handiagoa dagokie.

- Koherentziari eustea politiketan; hala nola, merkataritza-, garapen-, ingurumen- eta migrazio-politiketan.

- Nazioarteko hitzarmenetan, asmoari eta justiziari eustea, eta hitzarmen horiek lotesleak izatea.

- Finantziazio nahikoa, egokia eta arrazoizkoa izatea, hitzarmen horien ondorioz sortutako tresnetarako.

- Mundu mailako ondasunak modu iraunkorrean kudeatze aldera, emakumeen eginkizuna ezinbestekoa dela aintzatestea.

- Herrien, indigenen eta tokian tokiko komunitateen ezagutza tradizionalak eta bizimoduak bultzatzea, errespetatzea eta aintzatestea.

- Mundu mailako ondasunekin ez espekulatzea.

- Biodibertsitateak eta zona idorrek balio ekono-

mikoa soilik ez dutela onartzea.

- Ingurumen-degradazioaren ondorioetara egokitzea eta hondamendi-arriskua kudeatzea.
- Munduko ondasunak modu iraunkorrean erabiltzea eta etekinak modu bidezkoan banatzea.
- Arreta printzipioa betetzea.
- Berotegi-efektuko gasen isurketa murriztea; batez ere, Iparraldeko herrialdeetan.

## *Energia*

NBEk 2012. urtea izendatu zuen “Guztiontzako energia iraunkorraren nazioarteko urtea”. Dena den, gaur egun, energia-baliabideen banaketa eta eskurabidea ez da batere bidezkoa mundu osoan.

Horri egiten dio erreferentzia energiaren arloko arazo nagusietako batek: mundu mailako energia-pobreziak. Munduan, 1.300 milioi pertsonek ez dute argindarrik.

Bestalde, herrialde eta gizarte batzuetan, energia-kontsumoa da klima-aldaketaren kausetako bat. Klima-aldaketa da aurrez aurre dugun erronka handienetakoa, eta lotura estua du energia modu ez-iraunkorrean ekoiztearekin eta kontsumitzearekin.

Garapena energia-kontsumoaren mende egon da; are gehiago, energia-kontsumoa herrialdeen aberastasunaren adierazle bilakatu da. Giza ongizatea handitzeko, energia-ekoizpena handitu behar izan dugu, baina, herrialde garatuetan, naturaren mugak gainditu ditugu.

Norabidea aldatu behar dugu. Horregatik, sistema deszentralizatu bat proposatzen dugu, energia garbiaren aukerei segurtasun juridikoa emango diena. Sistema horretan, autokontsumoa errealitate bilakatuko da, eta herritarrek bermatua izango dute energia-maila egokia.

Gizarte bat imajinatzen dugu, lehentasuna emango diona, lehenik eta behin, energia-aurrezpenari, bigarrenik, energia-eraginkortasunari eta, hirugarrenik, energia berriztagarriei.

Energiaren aldetik autonomoak izateko gai diren komunitateak nahi ditugu, edo energia banatzeko elkartasun-sareetan parte hartzen dutenak.

Ez dugu jarraitu nahi irtenbide faltsuak erabiltzen; hala nola, energia nuklearra, harri bituminosoak, eskisto-gasak eta karbonoaren atzemate eta bilketa, eta frackinga[17]. Irtenbide horiek iraunaraziko dute gaur egungo sistema energetikoa, funtsean erregai fosiletan eta Hegoalde globaleko baliabideen espoliazioan oinarritzen dena.

[17] Haustura hidraulikoa (ingelesez fracking deritzona) da teknika bat, lurpetik gasa eta petrolioa ateratzeko, bai eta kopuru handiak ateratzeko ere. Prozedura horretan, presio handian injektatzen dira ura, hondarrarekin nahasia, eta produktu kimikoak, bai eta aparrak eta gasak ere, zertarako eta gasa edo petrolioa duen harkaitz-substratuan dauden zartadurak zabaldu eta gasa edo petrolioa kanpora irtenarazteko.

# 5

# Ekintza-proposamenak





**Argazkia**: Altekio

Aurreko atalean jasotako aurkezpen labur inspiragarriak, mintegiko bigarren eguneko goizean eginikoak, abiapuntu izan ziren, arlo bakoitzean proposamen zehatzak egiteko eta lehenesteko.

Kafe-eztabaida bat egin genuen, eta, bertan, nahi dugun etorkizunari buruzko helburu eta ikuspegi partekatuak sortu ziren, gai bakoitzaren inguruan. Jarraian, aditu-talde batek gaietako bakoitza landu zuen, partaide guztien ekarpenen bidez aberastutako ikuspegiak baliatuz. Taldeetan, ekintza-proposamen batzuk egin zituzten, jasotako informazioa oinarri hartuta. Proposamenak epearen arabera sailkatu ziren: epe laburrekoak (2012-2013), epe ertainekoak (2014) eta epe luzekoak (2015 eta gerora). Halaber, proposamen horien lurralde-esparrua definitu zen (tokian tokiko, eskualdeko, estatuko eta nazioarteko proposamenak).

Gero, proposamenak lehentasunaren arabera sailkatu ziren, irizpide hauek kontuan hartuta: proposamenen garrantzia eta proposamen horietan parte hartzeko interesa. Talde bakoitzak proposamen horietako bat edo bat baino gehiago landu zuen, sakon landu ere, eta hau guztia zehaztu: helburuak, zioak, inplikatutako gizarte-eragileak, proposamena garatzeko eman beharreko pausoak, baliabideak, ebaluazioa, eta abar. Lehenetsitako proposamen bakoitzak, hortaz, azalpen txiki bat du, proposamena abian jartzeko, erresistentzia-test gisa.

Jarraian, taldeetan eginiko lanaren emaitzak eskainiko dizkizuegu. Bilbon eta Madrilen eztabaida-taldeek eginiko proposamenak jaso ditugu, bai eta proposamen horien epea, eremua eta lehentasuna ere. Horretaz gainera, lehenetsitako proposamenen (lehentasun handiko proposamenen) laburpena jaso dugu. Proposamen horietako batzuk beste batzuk baino gehiago landu genituen.

**OHARRA:** Ekintza-proposamenetan aipatutako erakundeak eta entitateak berez agertu ziren lan-saioetan zehar eta horregatik dokumentu honetan agertzen dira. Hala ere, hark ez du esan nahi adierazitakoarekin ados egon behar dutenik.

## GAI-TALDE DESBERDINEN INDIZEA

*1. Elikadura eta ura*

/ BILBO **/ 40 Orr**

/ MADRIL **/ 42 Orr**

*2. Giza eskubideak*

/ BILBO **/ 44 Orr**

/ MADRIL **/ 46 Orr**

*3. Kontsumo eraldatzailea*

/ BILBO **/ 48 Orr**

/ MADRIL **/ 50 Orr**

*4. Mundu mailako ingurumen-erronkak*

/ BILBO **/ 52 Orr**

/ MADRIL **/ 54 Orr**

*5. Energia*

/ MADRIL **/ 56 Orr**

*1. Elikadura eta ura*

## / BILBO

| Proposamenaren izena | Lehentasuna | Eremua | Epea |
|---|---|---|---|
| Esperientzia arrakastatsuen eta irakaspenen bankua sortzea + Ikas-komunitatea (garapen-eredu alternatiboak) (lineako ikastaroak). Elikadura-burujabetzaren eskola Euskadin. (AAB1) | Handia | Nazioartekoa | 2012-13 |
| Elikadura-burujabetzaren behatokia Espainian (2014-2015). (AAB2) | Handia | Estatukoa | 2014-15 |
| Oinarrizko gizarte-ehuna indartzea, familiak eta mugimendu (des)antolatuak kontuan hartuta. | Ertaina | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| Sailen arteko politika koherenteak (esate baterako, Hezkuntza eta Nekazaritza). | Ertaina | Eskualdekoa eta estatukoa | 2012-13 |
| Lurrak metatzea (talde bat sortzea, instituzioetan eta gobernu nazionaletan eragina izateko). | Ertaina | Estatukoa | 2014 |
| GIH +2015: ura eta saneamendua. Espainiako GKE-ekin batera mamitu. | Ertaina | Estatukoa | 2012-13 |
| Santo Tomas Soberano (Santo Tomaseko azokan stand bat jartzea). Bizkaian. | Ertaina | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| Hilgarriak diren produktu kutsatzaile batzuen ekoizpena arautzea. | Ertaina | Estatukoa | 2012-13 |
| Basque Culinary Center-era jotzea eta elikadura-burujabetza. Euskadi. | Txikia | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| Elikadura-burujabetzaren astea. Bizkaia-Euskadi. | Txikia | Eskualdekoa | 2012-15 |
| Informazioa ematea, Espainiako enpresek beste herrialdeetan duten eraginaren inguruan. | Txikia | Eskualdekoa | 2012-13 |
| Egun jakin batzuk ospatzea. | Txikia | Eskualdekoa | 2012-13 |
| Merkaturatze-bide laburrak errekuperatzea zeinen garrantzitsua den balioestea, bai eta berme ziurtatu eta kolektiboa balioestea ere. | Txikia | Eskualdekoa | 2012-13 |
| Herritarrak informatzea, beren gobernuak betetzen ez dituen politikei, egiten ez dituen kudeaketei eta abarri buruz. | Txikia | Estatukoa | 2012-13 |
| Informazioa eskuratzera bultzatzea. | Txikia | Nazioartekoa | 2012-13 |
| Emakumeek erabakiguneetan parte har dezatela bultzatzea. | Txikia | Nazioartekoa | 2012-13 |
| Gizartea informatzea, beste gobernu batzuek betetzen ez dituzten politikei, egiten ez dituzten kudeaketei eta abarri buruz. | Txikia | Nazioartekoa | 2012-13 |
| Azterlanak egitea, Iparraldeko eta Hegoaldeko kasuak alderatzeko: elikadura-burujabetza praktikan jarria. | Txikia | Estatukoa eta nazioartekoa | 2012-13 |

1. Elikadura eta ura

## / BILBO / Sakon landutako proposamenak

### ESPERIENTZIEN BANKUA – IKAS-KOMUNITATEA

Proposamen honen helburua da esperientziak eta irakaspenak trukatzea; zehazki, elikadurarekin eta urarekin lotutako esperientzia inspiragarrien eta jardunbide egokien inguruan izandako esperientziak eta irakaspenak trukatzea. Beste eredu batzuk erakutsi nahi ditugu; eredu horien bidez, gizarte zibileko erakundeek gai horiek nola landu jakin dezaten. Beste helburu bat da arrazoibide komun bat sortzea, esperientzia arrakastatsuetan oinarrituta.

Proposamen honetan, hainbat gizarte-eragilek parte hartuko dute; hala nola, organismo publikoek (URA - Uraren Euskal Agentzia), osasun-gaiak lantzen dituzten gobernuz kanpoko erakundeek eta, oro har, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek.

Proposamena abiarazteko prozesuak hainbat fase ditu. Lehenengo faseetan, elkarguneak sortuko dira dagoeneko lankidetzan aritu diren antzeko erakundeen artean. Gero, lankidetza beste erakunde-mota batzuekin egin daitekeen aztertuko da.

Lehenengo urratsa da Bizilur eta Ura biltzea, Euskadiko GGKEKn, eta, gero, beste erakundeak informatzea.

Proposamena garatzeko baliabideei dagokienez, funtsean, giza baliabideak behar ditugu. Proposamen honetan, ikastetxeek, nekazaritza-prestakuntzako zentroek eta nekazariek parte hartuko dute.

### ELIKADURA-BURUJABETZAREN BEHATOKIA ESPAINIAN

Proposamen honen helburua da Espainian elikadura-burujabetzaren inguruan dauden politikak eta jardunbideak zaintzea eta haien jarraipena egitea. Horrela, ezagutza eta gardentasun handiagoa lortuko dugu nekazaritzako elikagaien gainean.

Behatokiko partaide izan daitezke GGKEak, nekazaritza-erakundeak, think tank delakoak, GRAIN edo antzeko erakundeak, nekazari-sindikaturen batekin eta unibertsitateren batekin elkarlanean. Partaide bakoitzak maila jakin batean parte har dezake: harremanetan jar daiteke, ekimenari buruzko informazio eskatu, unean uneko lankidetza bat egin edo proposamena abiarazteko konpromisoa hartu eta parte hartu.

Proposamen honek ekoizle txikien alde egiten du, eta ez, nekazaritza- eta industria-enpresa handien alde.

Behatokia bultzatu nahi dugu, GRAINi eta Mugarik gabeko Albaitariak erakundeari proposatuz. Asmoa da bilera bat egitea, harremanetan jartzeko eta proposamena bideragarria den aztertzeko.

Adituak behar ditugu politikak kontrolatzeko eta haien jarraipena egiteko; orobat behar ditugu finantza-baliabideak.

1. *Elikadura eta ura*

## / MADRIL

| Proposamenaren izena | Lehentasuna | Eremua | Epea |
|---|---|---|---|
| Herritarrak mobilizatzea, arazo komunen inguruan (ura, elikagaien salneurria, ereduaren eutsiezintasuna). | Handia | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| 2015 osteko agendan eragina izatea, elikadura-justiziaren eta ura izateko eskubidearen arloetan. | Handia | Estatukoa eta nazioartekoa | 2012-13 |
| Herrialdeei/Eskualdeei buruzko datuak/ikerketa (enpresak, merkataritza-politiken eragina, energia-politiken eragina...). | Ertaina | Nazioartekoa | 2012-13 |
| Abian dauden esku-hartzeen eta identifikatzen ari diren esku-hartzeen autodiagnostikoa egitea, esku-hartze horiek zinez eraldatzaileak izan daitezen (lan-egitasmoa). | Ertaina | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| GGKE-en lankidetza, Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Espainiako Koordinakundeko uraren taldean (MGH ondoren, FCAS - Ur eta saneamendurako lankidetza-funtsa). | Ertaina | Estatukoa | 2012-13 |
| Kanpainak egitea, ura eta elikadura izateko eskubidea urratzen duten enpresen aurka. | Ertaina | Estatukoa | 2012-13 |
| Urari eta saneamenduari buruzko foroa, Erdialdeko Amerikan. Hausnarketa kolektiboa, eta antolabide berriaren politikak eraikitzea. | Ertaina | Nazioartekoa | 2012-13 |
| Hezkuntza eta sentsibilizazioa. | Ertaina | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| Plan estrategikoa egitea, politikak definitzea, irizpideak ezartzea. | Ertaina | Estatukoa | 2012-13 |
| Aliantzak egitea edo indartzea (mezuak, jarrera-hartzeak, ekintzak). | Ertaina | Estatukoa | 2012-13 |
| Aliantzak egitea, elikadura-burujabetza aldezten eta bultzatzen duten beste mugimendu eta erakunde batzuekin (esate baterako, Vía Campesina erakundearekin). | Ertaina | Nazioartekoa | 2012-13 |
| Esperientzia kapitaliza dadin bultzatzea, erakunde barruan eta sektorean. | Txikia | Estatukoa | 2012-13 |
| Komunikabideekin lan egitea. | Txikia | Estatukoa | 2012-13 |

*1. Elikadura eta ura*

## / MADRIL / Sakon landutako proposamenak

### AAM1. HERRITARRAK MOBILIZATZEA, ARAZO KOMUNEN INGURUAN (ura, elikagaien salneurria, ereduaren eutsiezintasuna)

Proposamenaren helburua da elikadurari eta urari dagokionez gauzak erabat aldatzea, herritarrei gai horietan parte harraraziz eta tokian tokiko aldaketak eraginez. Gizarte-erakundeek proposamen hau bultzatuko dute, eta parte hartzera bultzatuko dituzte kontsumitzaileak, ekoizleak, hezkuntza-sektorea eta gizarte zibileko beste erakunde batzuk. Sare-lana egingo dute eta aliantzak egiten saiatuko dira, agenda komun bat sortzeko. Hona hemen proposamena garatze aldera egin beharreko urratsak:

**1/** Helburu bera duten aliatuak bilatzea: harremanetan jartzea abian diren sareekin, aholku eskatzeko eta proposamen komun bat lantzeko.
**2/** Hasierako diagnosia (ikerketa, esperientzia-trukea).
**3/** Estrategia komun bat egitea.
**4/** Erantzukizunak, konpromisoak eta helburuak definitzea.
**5/** Tokian tokiko eta mundu mailako ekintzak egitea.
**6/** Tokian tokiko eta mundu mailako ekintzekin bat egitea.
**7/** Jarraipena, ebaluazioa, ikaskuntza.

Baliabide hauek beharko ditugu: giza baliabideak (horretan lan egingo duten pertsonak), baliabide ekonomikoak (ekintzak, langileak eta abar finantzatzeko) eta baliabide materialak (informatikoak eta abar).

### AAM2. 2015 OSTEKO AGENDAN ERAGINA IZATEA, ELIKADURA-JUSTIZIARI ETA URA IZATEKO ESKUBIDEARI DAGOKIONEZ

Helburu orokorra da aliantzak eta sareak egitea, elikadura, ura eta saneamendua izateko eskubidea babesteko. Testuingurua zaila dela jakinik, gaitasunak baliatu nahi ditugu, bai eta eragin hobea izan eta ondorioak ugaritu ere. Zehazki, berariazko helburua da 2015 osteko agendan eragina izatea, saneamenduaren gaia agendan sartzeko.

Parte hartzera bultzatuko ditugu GGKEak, erakunde ekologistak, unibertsitateak, kontsumitzaileen erakundeak, think tank delakoak eta Klima Koalizioa[18] . Orobat saiatuko gara proposamen hau GGKEEKen[19] bidez bultzatzen; zehazki, koordinakunde horretako uraren eta elikaduraren taldeak sustatzaile izatea nahi dugu, abian diren beste sare batzuekin batera. Horretarako, lehenik eta behin, lan-eremua zabaltzea proposatuko diegu.

2015 osteko agenda bera izango da abiapuntu. Abian diren ekimenak, bideak eta prozesuak baliatuko ditugu, eta proposamen komunak (jarrera-hartzeak, helburuak eta abar) eta baterako ekintzak egin.

Proposamena garatu ostean, zenbait adierazle erabiliko ditugu helburua bete den ala ez ebaluatzeko. Hona hemen adierazle horietako batzuk:

**1/** Erakunde- eta aliantza-kopurua.
**2/** Espainiako gobernuaren proposamenean adierazle/helburu bat jasotzea, elikadura, ura eta saneamendua izateko eskubidearekin lotutakoa.
**3/** Zenbat jarrera-hartze, proposamen eta ekarpen egin dituzten elkar hartu duten kolektiboek.

[18] Klima Koalizioa 30 erakundek osatzen dute, arlo hauetakoek: ekologismoa, sindikalismoa, garapenerako lankidetza, zientzia eta ikerketa, kontsumit zaileak eta hainbat motatako gizarte-taldeak. Klima Koalizioko erakunde-partaideen ustez, klima-aldaketa da gizadiak epe laburrean duen erronka handienetako bat. Klima-aldaketak arriskuan jartzen du, beste ezerk baino gehiago arriskuan jarri ere, giza garapen iraunkorra lortzea —giza

## 2. Giza eskubideak

### / BILBO

| Proposamenaren izena | Lehentasuna | Eremua | Epea |
|---|---|---|---|
| Zer erakundetan lan egiten dugun, erakunde horien barruan giza eskubideen politikak egitea. Giza eskubideen arloan prestakuntza jaso duten langileak (boluntarioak eta soldatapekoak). (DHB1) | Handia | Tokian tokikoa | 2015 |
| Giza eskubideak babesteko estatuko eta nazioarteko sistema hedatzea: Nor da nor?<br>- Batzordeak<br>- Auzitegiak<br>- Kontseilua | Ertaina | Estatukoa | 2012-13 |
| Lantalde bat sortzea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordearekin, giza eskubideen ikuspegia euskal politika publikoetan txertatzeko. | Ertaina | Eskualdekoa | 2012-13 |
| Nazioartean aliantzak egitea. | Ertaina | Nazioartekoa | 2012-13 |
| Ekin aurretik, barne-hausnarketa egitea: Giza eskubideen zer ikuspegi landuko dugu eta nola? Sektorez sektore eta oro har. | Ertaina | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| Nazioarteko aliantzak egituratzea. | Ertaina | Nazioartekoa | 2015 |
| Lantalde bat sortzea, Parlamentuko Giza Eskubideen Batzordearekin, giza eskubideen ikuspegia Estatuko politika publikoetan txertatzeko. | Txikia | Estatukoa | 2012-13 |
| Giza Eskubideen Estatuko Plana errekuperatzeko lan egitea. (Eskualdekoa eta estatukoa). Espainiako estatua bultzatzea, nazioarteko konpromisoak eta giza eskubideen nazioarteko mekanismoen gomendioak bete ditzan. GKE-entzako gida: Nola parte hartu giza eskubideak babesteko mekanismoetan? | Txikia | Estatukoa | 2012-13 |
| Estatuko eta nazioarteko eragileak identifikatzea, giza eskubideen politikak egiteko garrantzitsuak direnak. | Txikia | Eskualdekoa eta estatukoa | 2012-13 |
| Nazioarteko mekanismoen berri izatea. | Txikia | Nazioartekoa | 2014 |
| Mundu mailako hiru agenda hauek uztartzea: ekonomiaren agenda, garapenarena eta giza eskubideena. | Txikia | Nazioartekoa | 2015 |

garapenak bide emango digu pobrezia ezabatzeko—. Orobat jartzen du arriskuan mundu mailako ekosistema, eta, hortaz, kolokan jartzen du gizakion ongizatea, bai eta biziraupena ere. Iturria: http://www.coalicionclima.es/quienes-somos

[19] GGKEEK: Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Espainiako Koordinakundea.

## *2. Giza eskubideak*

### / BILBO / **Sakon landutako proposamena**

#### ZER ERAKUNDETAN LAN EGITEN DUGUN, ERAKUNDE HORIEN BARRUAN GIZA ESKUBIDEEN POLITIKAK EGITEA

Ezinbestekoa da gizarte zibil antolatuak giza eskubideen ikuspegiaren berri izatea eta ikuspegi hori bere egitea. Horren ildotik, helburu hau ezarri dugu, 2015erako: erakundeek giza eskubideen ikuspegia txertatzea beren barne-funtzionamenduan, bai eta lan-ekintzetan eta -politiketan ere. Ekimen hau bultzatuko dute GGKE-en Koordinakundeak/Lankidetza Batzordeak/Lankidetzaren Euskal Agentziak eta erakundeek (Batzordeek eta Zuzendaritzak), lantalde teknikoaren bidez (soldatapekoa izan edo ez).

Prozesu bat diseinatuko dugu, epe ertainekoa, erakunde-kultura aldatzeko. Ekintzari buruzko prestakuntza eta hausnarketa izango dira abiapuntu, eta, gero, ekintzari berari helduko diogu (giza eskubideen ikuspegia plan estrategikoetan txertatu, politikan eragina izan eta abar).

Hauek izan daitezke aliatuak: giza eskubideen ikuspegia txertatua izateaz gainera, prestakuntza-materiala duten erakundeak; Lankidetzaren Euskal Agentzia —baliabideak hornituz, koherentziari eusteko (Plan gidatzaile berria)—; giza eskubideen arloan lan egiten duten gizarte-mugimenduak; giza eskubideen arloko Nazio Batuen mekanismoak; eta gizarte-sektoreko erakundeak.

## 2. Giza eskubideak

### / MADRIL

| Proposamenaren izena | Lehentasuna | Eremua | Epea |
|---|---|---|---|
| Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko truke- eta lankidetza-sareak: (DHM1)<br>- Tokian tokiko esparruaren eta nazioarteko esparruaren arteko loturak. Etxeko esparrua/Latinoameriketako emakumeen ekimenak.<br>- Elkarteentzako/Eskolentzako batzarretan parte hartzea.<br>- Sektore bakoitzean alternatibak proposatzeko, eta herritarrak antolatzeko gunea.<br>- Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundeen topaketa. (2013-2014)<br>- Tresnak partekatzea eta gauzak kritikoki aztertzea (tokian tokikoa - nazioartekoa). | Handia | Tokian tokikoa eta nazioartekoa | 2012-14 |
| Guztion artean giza eskubideen adierazleak ezartzea eta beharrezko politikak egitea. | Ertaina | Eskualdekoa | 2014 |
| Erakundeen barruan lan egitea (2012-2015). | Ertaina | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| Giza eskubideak berrikustea, hau kontuan hartuta: Zerk kezkatzen zaitu/du? "Beste" giza eskubide batzuk egitea. | Ertaina | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| Sektore-politiken koherentziaren gainean hausnartzeko eta baterako proposamenak egiteko guneak (mugimenduak hemen eta Hegoaldean sortzen ditugu): ekologia, feminismoak, kontsumoa, etxebizitza. | Ertaina | Eskualdekoa | 2012-13 |
| Kontsulta-prozesua. Gaia: Rio+20 ondoren eta 2015 ondoren. Estatuko eta nazioarteko garapenaren agenda zehaztea. (Estatukoa – nazioartekoa) | Ertaina | Estatukoa | 2012-13 |
| Maréa Violeta. Cádizko Goi Bilera (2012ko azaroa). Alternatibak eta Iparraldeko eta Hegoaldeko mugimenduak, bat egiten, salatzen eta lankidetzan jarduten dutenak (emakumeak, Red WIDE). | Ertaina | Nazioartekoa | 2012-13 |
| Murrizteen eta doitze-politiken aurkako mobilizazioak egitea hainbat fronte eta sektoretan. Bat-egiteak eta erakundeak bilatzea, eta kalera jotzea. | Txikia | Eskualdekoa eta estatukoa | 2012-13 |

## / MADRIL / **Sakon landutako proposamena**

### IPARRALDEAREN ETA HEGOALDEAREN ARTEKO TRUKE- ETA LANKIDETZA-SAREAK

- Hauexek dira helburuak: hainbat lan-arlotako esperientziak jasotzea, alternatiba eraldatzaileak eraikitzea eta giza eskubideen arloan lan egiten duten kolektiboen eta sareen, Iparraldekoen (15M, giza eskubideen erakundeak, Munduko Gizarte Foroa, eta abar) zein Hegoaldekoen (Hegoalde globaleko erakundeak eta sareak, Munduko Gizarte Foroa, eta abar), ikuspegia bateratzea.

- Proposamena garatze aldera, beste lan-bilera bat egingo da. Bilera horretan, erakunde sustatzaileek parte hartuko dute. Asmoa da sinergiak baliatzea edo/eta sortzea antzeko beste gune batzuekin.

3. *Kontsumo eraldatzailea*

## / BILBO

| Proposamenaren izena | Lehentasuna | Eremua | Epea |
|---|---|---|---|
| Beste kontsumo-eredu bat sustatzea, euskal GKE-ek eta erakundeek adierazitako helburuekin eta printzipioekin bat etorriko dena. Barrutik hastea. (CTB1) | Handia | Eskualdekoa | 2012-13 |
| Modu koordinatuan eta sare gisa lan eginez administrazio publikoetan eragina izatea, kontratazio- eta salmenta-politiketan erantzukizun-irizpideak har ditzaten. Kanpaina bat egitea, koherentzia bultzatzeko politika publikoetan, kontuan hartuta erosketa etikoa, nekazaritzako kontratazioak eta kanpo-merkataritza. (CTB2) | Handia | Eskualdekoa | 2015 |
| Kontsumo-gida. Lineako/Lineaz kanpoko tresna (dinamikoa, eskuragarria eta praktikoa), informazioa bildu eta eskainiko duena arduraz kontsumitzeko egin ditzakegun gauzei buruz. | Ertaina | Nazioartekoa | 2014 |
| Tokian-tokian, kontsumo-greba bat antolatzea, marka handiak ez kontsumitzeko. | Ertaina | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| Kanpaina/Sare-lana, zertarako eta bidezko merkataritza, kontsumo arduratsua eta hurbileko kontsumoa lotzeko eta nekazaritza-sektorea balioesteko. | Ertaina | Eskualdekoa | 2014 |
| Herriaren jakinduriari ahotsa ematea, eta elkarrekin harremanetan jartzera bultzatzea jakinduria ez-konbentzionala duten pertsonak, elkarteak eta beste pertsona batzuk (irakasleak eta ikasleak...). | Ertaina | Tokian tokikoa | 2014 |
| Auzoko familia-merkataritza bultzatzea, haien produktu-eskaintzan erantzukizun-irizpideak txertatuz (saltoki txikiekin lan egitea). | Ertaina | Tokian tokikoa | 2015 |
| Tokian-tokian, sare bat sortzea edo kanpaina bat egitea, kontsumo kontziente eta arduratsua bultzatzeko. | Ertaina | Nazioartekoa | 2015 |
| Bertako produktuak kontsumitzea (oinarrizko erakundeak). | Txikia | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| Tokian-tokian, taldeak antolatzea, produktu birziklatuak eta berrerabiliak kontsumitzeko. | Txikia | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| Epe luzean (20-30 urte), nazioartean: publizitatea deuseztatzea. | Txikia | Nazioartekoa | 2040-50 |

*3. Kontsumo eraldatzailea*

## / BILBO / Sakon landutako proposamenak

### ERAKUNDEETAN, BARNE-KOHERENTZIA BULTZATZEA, KONTSUMO-GAIEI DAGOKIENEZ

Ekimen honen helburua da Euskadiko GKE-ek eta bestelako gizarte-erakundeek kontsumo arduratsu eta eraldatzailearen ereduak abian jartzea beren eguneroko lanean, koherenteagoak izan daitezen eta adibide izan daitezen gizartearentzat. Talde eragile bat sortuko da, ekimena koordinatzeko. Ekimen horretan parte hartzera bultzatuko ditugu gizarte-erakundeak, hornitzaileak eta kontsumitzaileak. Hasteko, parte-hartzezko lantegiak egingo dira, prestakuntza emateko eta “dekalogo” bat sortzeko.

### CTB2. POLITIKA PUBLIKOETAN ERAGINA IZATEKO KANPAINA-/EKIMEN-PROPOSAMENA

Helburua da administrazio publikoetan koherentzia bultzatzea. Horretarako, modu koordinatuan eta sare gisa lan egingo dugu, eta zenbait jardunbide bultzatuko; hala nola, erosketa publiko etikoa (erantzukizun-irizpideak ezarriz kontratazioetan eta erosketetan), kontsumo arduratsua, bidezko merkataritza eta nekazaritza ekologikoa.

Ekimena administrazio publikoarentzat da. Parte hartzera bultzatuko ditugu alderdi politikoak, komunikabideak, GKEak eta gizarte-mugimenduak, nekazariak eta nekazari-sindikatuak, ikastetxeak eta enpresak (hornitzaileak, esleipendunak eta abar). Ekimen hori GKE-ek eta gizarte-erakundeek, gizarte-ekonomiako erakundeek eta aliatuek bultzatzea nahi dugu, lehenengo sektoreko ekoizleekin eta sindikatuekin elkarlanean.

Horrelako proposamenak administrazio publikoan eta lehenengo sektorean sartzeko modurik onena zein den aztertuko dugu. Alderdi politikoekin hitz egingo dugu, aliatuak bilatuko ditugu eta proba pilotu bat egingo dugu, emaitzak ebaluatze aldera.

*3. Kontsumo eraldatzailea*

## / MADRIL

| Proposamenaren izena | Lehentasuna | Eremua | Epea |
|---|---|---|---|
| Topaketa/Kanpaina bat antolatzea: “bizi hobeto gutxiagorekin” (eragileak, estrategiak, ideiak, guneak, irizpideak, webgunea, KPI estatura zabaltzea). *** (CTM1) | Handia | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| Kontsumo-taldeak koordinatzea. *** | Ertaina | Eskualdekoa | 2012-13 |
| Hilean behin, kontsumo-grebak egitea. Lantalde bat osatzea, kontsumo-grebaz arduratuko dena. *** | Ertaina | Estatukoa | 2012-13 |
| Topaketa/Kanpaina, gure eguneroko kontsumoaren fluxu ezkutua agerian jartzeko: arrasto ekologikoa, gastu energetikoa, kontsumo-ondasunen zor ekologikoa. ** | Ertaina | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| Kontra-publizitatearen kanpaina, bizi onari buruzkoa (aurreko proposamenarekin lotuta dago) (asmoa da estatura zabaltzea eta epea luzatzea). * | Ertaina | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| Parte-hartzezko prozesuak diseinatzea. Esate baterako, energiarekin lotutako prozesu bat: lehenengo urratsa izango da teknikariak eta beste erakunde batzuk biltzea, jakiteko zer zalantza eta premia dauden eta zer prozesu abiarazi behar diren. * | Ertaina | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| RETORNA kanpaina: kanpaina senatuan aurkeztea (urriaren 25ean), kabildoekin eta Kanarietako udalekin biltzea (azaroan). * | Ertaina | Estatukoa | 2012-13 |
| Lantegia, oinarrizko premiak modu sinergikoan, iraunkorrean eta justuan asetzeko zer jakin behar dugun aztertzeko (premiak/premia horiek asetzeko bideak) (lotuta dago bizi onari buruzko kanpainarekin). | Txikia | Tokian tokikoa | 2014 |
| Ikuspegi jakin bat lantzea, sistemikoa eta belaunaldien artekoa. Proiektuek etengabe egin behar dute aurrera; horretarako, ezinbestekoa da belaunaldien arteko txandakatzea. | Txikia | Eskualdekoa | 2015 |
| Kontsumo arduratsuaren alde lan egiten duten erakundeek aliantza bat sortzea. | Txikia | Estatukoa | 2014 |

## / MADRIL / **Sakon landutako proposamena**

### CTM1. “BIZI HOBETO GUTXIAGOREKIN – BIZI ONA” TOPAKETA ANTOLATZEA

- Topaketaren helburua da “Bizi hobeto gutxiagorekin” eta “Bizi ona” leloak zabaltzea. Talde bat sortuko da, topaketa sustatzeko. Talde horretako kide izatera gonbidatuko ditugu REAS, Mercado Social, 15M eta kontsumo-arloan lan egiten duten gizabanakoak eta erakundeak.

- Urrats hauek egingo ditugu:
  **/** Talde sustatzailea elkartu egingo da (kontzeptua garatu, logistika, dinamikak eta abar).
  **/** Informazioa bilduko dugu, gaiarekin lotutako kontzeptuen gainean, eta topaketan nork parte hartuko duen erabakiko (erakundeak, beste pertsona batzuk).
  **/** Topaketa diseinatuko dugu (sustatzaileek eta interesa duten beste pertsona batzuek egingo dute hori).
  **/** “Bizi hobeto gutxiagorekin – Bizi ona” 1. topaketa egingo dugu.

4. *Mundu mailako ingurumen-erronkak*

## / BILBO

| Proposamenaren izena | Lehentasuna | Eremua | Epea |
|---|---|---|---|
| Eztabaida- eta ekintza-taldeetan lanean jarraitzea. (RAGB1) | Handia | Eskualdekoa | 2012-13 |
| Hurbileko sareak sortzea, helburu praktikoak betetzeko, eta beste proiektu eta ideia batzuk aztertzea, helburu handiagoak betetzeko bide eman dezaketenak. (RAGB2) | Handia | Nazioartekoa | 2012-13 |
| Kontsumo- edo/eta ingurumen-arloko politika instituzionala (RAGB3). | Handia | Tokian tokikoa | 2015 |
| Ikerketa eta hezkuntza, eredu errealetan oinarrituta; esate baterako, baserri-eskola, herri autokudeatuak. | Ertaina | Tokian tokikoa | 2014 |
| Hazien bankua sortzea. | Ertaina | Tokian tokikoa eta euskaldekoa | 2014-15 |
| Mundu mailako ingurumen-erronkak prestakuntza-curriculumean sartzea. | Ertaina | Eskualdekoa | 2013-14 |
| Gizarte-mugimenduak batzea (mugimendu feministak, ekologistak...). | Ertaina | Estatukoa | 2012-13 |
| Lankidetza- eta hezkuntza-proiektuak, ingurumena zeharka lantzen dutenak eta ingurumen-arloko helburuak dituztenak. Koordinakundean eta euskal erakundeetan eragina izatea. | Ertaina | Nazioartekoa | 2012-13 |
| Lan-eskubideei eta globalizazioari buruz hausnartzea, sentsibilizatzea eta irakastea sindikatuaren barruan. | Ertaina | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| Tokian tokiko eraikin ustez kutsagarrien errolda. | Ertaina | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| Elkarrizketak bultzatzea ekimen eta proiektu berritzaile eta eredugarriak egiten dituzten eragileekin. | Ertaina | Tokian tokikoa | 2013-14 |
| Lurren laginketa eta bankua. Lurrak ekitatiboki banatzea. Desjabetzea. | Ertaina | Eskualdekoa | 2015 |
| “Basoa eta garapena” jardunaldia, garapenerako baso-lankidetzaren sarea. | Ertaina | Estatukoa | 2012-13 |
| Gai unibertsalei buruzko ikerketa etengabe sustatzea, premiak zein diren jakiteko eta premia horiek lehenesteko. | Ertaina | Estatukoa | 2013-14 |
| Energia- eta garraio-eredua aldatzea (kontsumoa murriztea, energia alternatiboak garatzea eta lana banatzeko moduak aztertzea). | Ertaina | Estatukoa eta nazioartekoa | 2015 |
| Zerrenda bat egitea, hauek baliatuz: batetik, jarduera osasungaitzen, kaltegarrien, mingarrien eta arriskutsuen diagnostikoa; eta bestetik, tokian tokiko enpresei buruzko azterlana. | Txikia | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| Energia-kooperatibek hornitzea energia unibertsitatean. | Txikia | Eskualdekoa | 2014 |
| Kontsumo eraldatzaileari eta ingurumenari buruzko sentsibilizazioa eta hezkuntza. | Txikia | Eskualdekoa | 2015 |
| Pasantien programa, baso-ereduen Iberoamerikako sarean. | Txikia | Nazioartekoa | 2012-13 |
| Kontsumo energetikoaren eta kutsaduraren kuota ez-monetarioak jartzea enpresei. | Txikia | Nazioartekoa | 2012-13 |

*4. Mundu mailako ingurumen-erronkak*

## / BILBO / Sakon landutako proposamenak

### MUNDU MAILAKO INGURUMEN-ERRONKEI BURUZKO EZTABAIDA- ETA EKINTZA-TALDEETAN LANEAN JARRAITZEA

Zaila da gizartean eragina izatea eta egitura-aldaketak egitea. Hori dela eta, beharrezkoa iruditzen zaigu talde horiek lanean jarraitzea, helburu hori aldezteko. Parte hartzera bultzatuko ditugu gizarte zibil antolatu gabea, gizarte zibil antolatua (feministak, ekologistak eta beste hainbat talde), sektore pribatua (tokian tokiko dendak, kooperatibak, tokian tokiko enpresak, etab.) eta sindikatuak.

Talde dinamizatzaile bat sortuko dugu, parte hartzen duten gizarte-eragileen ordezkari izango dena, eztabaida-guneetatik kanpo harremanak sortzeko asmoz.

Lehenik eta behin, eztabaidari lotuko gatzaizkio, eta, gero, hainbat ekintza hitzartu eta abiaraziko ditugu.

### HURBILEKO SAREAK SORTZEA, HELBURU PRAKTIKOAK BETETZEKO

Helburua da beste erakunde batzuekin bat egitea, ahaleginak eta indarrak batu eta proiektu jakin bat garatuko dela bermatzeko. Ekimen honek premia batzuei erantzuten die, eta premia horietako asko erakundeen ahulguneak dira, txikiak nahiz handiak. Hurbileko sareak sortzea helburu duten erakundeei parte harraraziko diegu. Ekimen hau erakunde horietako edozeinek sustatuko du, eta interesdunek eta erakunde-partaideek mamituko dute. Urrats hauek egingo ditugu: gonbidatu, parte hartu eta hitzartu.

### KONTSUMO- EDO/ETA INGURUMEN-ARLOKO BARNE-POLITIKA

Kontsumo eraldatzailea bultzatzen duen edozein erakunderen arrazoibideak koherentea izan behar du jardunarekin. Hori abiapuntutzat hartuta, ekimen hau mahaigaineratu dugu. Beronen helburua da erakundeek kontsumo- edo/eta ingurumen-arloko kontsumo-politikak barneratzea. Ekimen hau GGKEEK-k edo antzeko erakundeek eta instituzio publikoek bultzatzea nahiko genuke.

Proposamen tekniko bat egingo dugu, zer egin dezakegun kontuan hartuta. Gero, proposamena eskala txikian aplikatuko dugu, eta erakundeetan erabakiak hartzen dituztenen babesa lortzen saiatuko gara.

Ekimena garatu ahala, eztabaida-prozesu bati ekingo diote erakunde bakoitzaren barruan, elkarrizketa sustatzeko eta langileak sentsibilizatzeko. Helburua izango da ahalik eta neurri gehien egitea ahalik eta erakunde-partaide gehienetan.

*4. Mundu mailako ingurumen-erronkak*

## / MADRIL

| Proposamenaren izena | Lehentasuna | Eremua | Epea |
|---|---|---|---|
| Kontsumo eraldatzaileari buruzko urteko kanpaina (Zer egin dezake gutako bakoitzak 8. MGHak lortze aldera?) (tokian tokiko esparrutik estatuko esparrura). Sentsibilizatzeko eta salatzeko kanpaina: Ingurumen-erronkak zure auzoan, komunitatean, herrialdean, planetan. Ingurumen- eta gizarte-krisia eta ekonomia-krisia lotzea. Ekonomia-krisia ingurumen- eta gizarte-krisiarekin lotuta dago. (RAGM1) | Handia | Estatukoa | 2014 |
| Kanpaina: klimaren inguruko negoziazioak bertan behera uztea (iraupena: 2015. urtera arte). Gizartea mobilizatzeko estrategia, hemendik 2015. urtera artekoa, klima-aldaketari aurre egitea xede duena, benetako eragina izango duena eta hemengo eta Hegoaldeko gizarte-mugimenduak lotuko dituena. 2015. urtera arte. Aurreko proposamenarekin lotuta dago. (RAGM2) | Handia | Nazioartekoa | 2012-13 |
| Bideo labur batzuk, eredu nagusiaren ordezko garapen-ekimenen berri emango dutenak (tokian tokiko ekimenak, baina proiektua estatu osokoa da). | Ertaina | Estatukoa | 2012-13 |
| Sare-lana, 2015 ondoren, garapenarekin, ingurumenarekin eta elikadura-segurtasunarekin lotutako gaietan eragin politikoa izateko, 2015. urtera arte. | Ertaina | Estatukoa | 2012-13 |
| Dokumentu bat egitea, nekazaritzaren, elikadura-segurtasunaren eta klima-aldaketaren artean zer lotura dagoen jakinarazteko (nazioarteko esparrua ere). | Ertaina | Estatukoa | 2012-13 |
| Kanpaina: gure denbora eta eremua berriro eskuratzea. Astero-astero, denbora eta eremua berriro eskuratzeari buruzko leloak jarriko ditugu sareetan (Latinoamerikako erakundeekin-eta lan egin dezakegu, hizkuntza dela eta) (tokian-tokian hasi eta estatuko esparrura zabalduko da). | Txikia | Estatukoa | 2012-13 |

*4. Mundu mailako ingurumen-erronkak*

## / MADRIL / Sakon landutako proposamenak

### KONTSUMOAREN GAINEAN SENTSIBILIZATZEKO ETA SALATZEKO KANPAINA

- Helburuak dira, batetik, sentsibilizatzea eta mobilizatzea, banakako ekintzak abiapuntu hartuta, eta, bestetik, kontsumoaren bidez beste gizarte-borroka batzuen alde egitea, ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-eredu zapaltzaileak agerian jartzeko, kritikatzeko eta desegiteko eta mundu mailan eragina izateko. Hauek izango dira partaideak: erakundeak, kontsumitzaileak (banakakoak eta antolatuak), elkarteak eta hezkuntzaren eta merkataritzaren arloko eragileak. Tokian tokiko saltoki txikiekin aliantzak egiten saiatuko gara.

- Urrats hauek egingo ditugu:
  **1/** Tokian tokiko borrokak identifikatu, bai eta borroka horiek kontsumo-arloarekin zer lotura duten identifikatu ere.
  **2/** Mezu ulergarriak egin, tokian tokiko borroken eta kontsumo eraldatzailearen artean zer lotura dauden aditzera emateko.
  **3/** Aliantzak egin.

- Ahalik eta erakunde eta saltoki gehienek parte hartzea nahi dugu, eta parte hartzen duten saltokietan kontsumo eraldatzailearen salmenta-ratioa ahalik eta handiena izatea, ohiko kontsumoaren produktuen aldean.

### EZ DUGU JOKO HONETAN PARTE HARTUKO. Klimari buruzko negoziazio-prozesua.

- Helburua da klima-aldaketa dela-eta hartzen diren erabakien inguruan kanpaina bat egitea, politikan eragina izateko. Zehazki, hauek dira helburuak:
  **/** Klimaren inguruko negoziazio ofizialetan aurrerapausorik ez dela ematen salatzea, eta ordezko prozesu bat bultzatzea eta prozesu horri indar ematea.
  **/** Mundu mailako esparru bat izatea, klima-aldaketaren aurkako borroka sustatu eta benetako eragina izango duena. Premia-premiazkoa da hori.

- Parte hartzera bultzatuko ditugu:
  **1/** Gizarte zibileko erakundeak, Iparraldekoak nahiz Hegoaldekoak.
  **2/** Kaltetuenen ordezkari diren erakundeak, beste erakunde batzuen laguntzarekin eta ahalmenarekin.
  **3/** Herrialde kaltetuenak eta klima-aldaketaren aurka borrokatzea erabaki dutenak.

- Erakundeek, ohituraz edo, fruiturik ematen ez duten ekimenak egiten jarraitzen dute. Asmoa da joera hori bertan behera utzaraztea, ordezko esparru bat indartzea eta lotura, sare eta helburu jakin batzuk ezartzea denentzat, Iparraldearen eta Hegoaldearen artean ordezko egoera bat sortzeko.

## 5. Energia

### / MADRIL

| Proposamenaren izena | Lehentasuna | Eremua | Epea |
|---|---|---|---|
| Energia-burujabetzaren aldeko astea egitea (transgenikoen aurkako astearen antzekoa izango da. Horretarako, beharrezkoa da aste hori egin aurretik eremu horretan lan egitea; esate baterako, energia-burujabetzari buruzko kanpaina bat egitea). (EM1) | Handia | Estatukoa | 2014 |
| Plataforma por un Nuevo Modelo Energético (PNME) zinez zabaltzea (beste eskualdeetan horren berri izan dezaten). | Ertaina | Eskualdekoa eta estatukoa | 2012-13 |
| Hiri-baratzeen sarea sendotzea. | Ertaina | Tokian tokikoa | 2012-13 |
| Kontsumo-taldeetan kontsumo eraldatzailea lantzea (kontsumo-taldeen ikuspegia zabaltzea, supermerkatu ekologiko hutsak izan ez daitezen. Karbono-arrastoaz, nekazaritza ekologikoaz, energia berriztagarriez eta finantza etikoez hitz egitea). | Ertaina | Tokian tokikoa | 2012-14 |
| Kontsumo-taldeen 1. topaketa antolatzea (kontsumo-taldeei beste elkarte eredugarri batzuen berri ematea eta beste gai batzuei buruz hitz egitea). | Ertaina | Eskualdekoa | 2012-13 |
| Erakundeek kontsumoa murriztea, energia berriztagarriak kontsumitzea eta joera hori beren inguruan zabaltzea (adibide zehatz bat da SEO kontratua bertan behera uztea eta Som Energiarekin bat egitea). | Ertaina | Estatukoa | 2012-14 |
| Som Energia - gizarte-ekonomiaren kooperatibaren eredua beste lurralde batzuetan aplikatzea (argiaren kontratua Som Energia eta halako kooperatibekin egitea). | Txikia | Eskualdekoa | 2014 |
| Energia-burujabetzari buruzko kanpaina hastea. | Txikia | Estatukoa | 2012-13 |

## 5. Energia

### / MADRIL / Sakon landutako proposamena

#### EM1. ENERGIA-BURUJABETZAREN ALDEKO ASTEA EGITEA

- Hona hemen proposamen honen helburuak:
  - / Energiari buruzko eztabaida jendartera zabaltzea, agerian jartzeko.
  - / Topagune bat sortzea, sinergiak sortzeko.
  - / Argindarraren oligopolioak eragiten duen gaitzespena baliatzea alternatibak sortzeko.

- Balizko partaideak: Klima Koalizioa, Plataforma por un Nuevo Modelo Energético (PNME), 15M, Plataforma Rural, kontsumitzaileak, trantsizio-mugimenduak, REAS, erakunde ekologistak, energia berriztagarriak sortzen dituzten enpresak (Electra Norte, Som Energia, Eolpop).

- Aukeretako bat da Borroka Dezentralizatuaren Astea egitea eta, aste horren baitan, bilgune bat eta ekimen global bat egitea. Aste barruan, ekintza dezentralizatuak egingo ditugu, eta, asteburuan, bilgunea eta manifestazioa.

- Hauek izango dira hurrengo urratsak: Plataforma por un Nuevo Modelo Energético (PNME) delakoarekin harremanetan jarri, aliantzak egin eta lantalde bat sortu, proposamena garatzeko.

- Helburuak betetzen diren ebaluatzeko, kontuan hartuko dugu ea astea egiten den, zenbat pertsonak aldatzen duten energia-hornitzailea, zenbat ekintza egiten diren eta zer oihartzun duen komunikabideetan.

## MINTEGI OSTEKO LANA BIDERATZEA

Mintegia egin ostean, prozesu bati ekin genion, ekintza-proposamenak definitzen eta abiarazten jarraitzeko. Esate baterako, erakunde gonbidatuek lan-bilera bat egin zuten, Madrilen, 2012ko abenduan. Bilera horretan, mintegia ebaluatu zuten, eta sare-lanaren premiaz eta ereduez mintzatu ziren. Bilera horretan bertan, bi lantalde tematiko sortu ziren.

Lantalde bat 2015 osteko garaia ari da lantzen. Hasteko, ekintza-agenda antolatu dute, elikadura-segurtasunari eta nutrizioari buruzko kontsultaren gainean. Halaber, egun bat antolatu dute Espainiako gizarte zibileko erakundeekin lan egiteko; zehazki, 2015 osteko garaiari begira, eragin politikoaren arloen inguruan lan egiteko.
Beste lantaldeak Bizi onari buruzko mintegi bat antolatzea du xede, eta aukerak eta mintegi horretan garatu beharreko edukiak eta ekintzak aztertzen ari da.



# 6
# Lankidetzarako funtsezko eragileak



**Argazkia:** Ramiro Nogal

Badakigu, gai horietan gauzak aldatzea nahi badugu, ezinbestekoa dela hainbat gizarte-eragilek elkarlanean jardutea; izan ere, gaiak konplexuak dira, eta arloa, zaila. Puzzleak zer pieza behar dituen esaten saiatu gara. Ildo horretatik, lantaldeetako batek eragile nagusiak identifikatu ditu; hau da, gai hauek lantze aldera, aliantzak norekin egin behar ditugun aztertu du. Horretaz gainera, beste eragile garrantzitsu batzuen zerrenda egin du, haiekin harremanetan jarri eta eragin politikoa izateko.

Lan hori, baina, ez da amaitu; aitzitik, ez du amairik. Izan ere, badakigu daudenak badirela baina ez daudela badiren guztiak. Hortaz, lanean jarraituko dugu, ateak zabalik, aipatu ez ditugun eragileak edo/eta bidean agertzen direnak geurera ekartzeko.

Hona hemen hasitako lanaren fruitua:

## / BILBO


Instituzio publikoak, ingurumenarekin eta garapenarekin lotutakoak
**Nekazaritza-erakundeak**, nekazaritza-munduarekin, nekazariekin, **Bizilurrekin**, **EHNE Bizkaiarekin** eta Vía Campesinarekin lotutakoak
**URA** - Uraren Euskal Agentzia
**Beste lankidetza-eragile batzuk: unibertsitatea, ikastetxeak**
**Hezitzaileak**: INGURUGELA; BIGE, BERRITZEGUNE
**Menagaraiko** emakume nekazariak, **EMBA**, **UAGA**
Talde ekologistak: **Ekologistak Martxan**
**Mondragoneko kooperatibak**
**Etorkinen** elkarteak
**Plataformak: CITSE eta CONCORD**
**Hegoaldeko ikuspegiak: Bate Giyez**
Kontsumitzaileen erakundeak edo/eta kontsumo-taldeak: **Zentzuz Kontsumitu**, kontsumo-taldeen tokian tokiko sarea
Sindikatuak: **CCOO**, **LAB**, **ELA**, **UGT...**

## / MADRIL

### *1. fasea*



*2. fasea*

(Haiekin lan egin beharko genukeen ala ez, denak ez gatoz bat; edonola ere, eragile garrantzitsutzat jo ditugu)



# 7
# Komunikatuak






**Argazkia:** Mintegia sare sozialetan

Mintegiak bi egun iraun zuen, bai Bilbon, bai Madrilen. Bi egun horietan, partaideek hainbat gauzari buruz hausnartu zuten, eta lan handia egin. Informazio asko zabaldu zen, eta lantalde bat iritzi eta pentsamolde komunak biltzen saiatu zen, partaideen ekarpen guztiak abiapuntu hartuta. Zehazki, gutxieneko komuna biltzen saiatu zen, mintegian parte hartu zuten erakundeen multiploa dena. Atal honetan jaso ditugu, laburbilduta, mintegiaren fruitu onentzat jo ditzakegun horiek.

Atal honen helburua da mintegian parte hartu zuten erakundeen ikuspegia jasotzea, Rio+20 osteko prozesua lantzen jarraitze aldera. Asmo horrekin zabaldu genituen ikuspegi horiek komunikabideetan, hain zuzen ere.

[20] Madrilgo mintegian jasotako hausnarketak: http://www.tweetdoc.org/View/56449/Reflexiones-PostRio-Madrid eta Bilbokoan: http://www.tweetdoc.org/View/56448/Reflexiones-PostRio-Bilbao

## / BILBO

Rioko prozesuaren ostean zabaltzen den aukera ikusita, 2015erako iraunkortasun-agendaren hurrengo urratsei begira eta gaur egun gizartearen, ingurumenaren, balioen eta politikaren arloan bizi dugun krisi-egoera kontuan hartuta, hemen bildutako erakundeen ustez, etorkizuna lantzen hasteko, ezinbestekoa da:

**1/ Ahaleginak lehenbailehen batzea**; erakundeak barne-barnetik aldatzea, bai eta benetan aldatzea ere, benetako lankidetza izateko.

**2/ Herritarrei gure mezuen berri ematea**; baikortasunez mintzatzea, proposamen hurbilak egitea eta hizkuntza ulergarria erabiltzea; parte-hartze handiagoa izatea eguneroko bizitzan, oro har, eguneroko bizitza gure lanarekin lotzeko.

**3/ Proposamen hausleak egitea**; gure oinarriak aztertzea; gauza berrien beldur ez izatea. Krisian egon arren, ezin gara geldirik gelditu. Ez dugu loturarik alderdi politikoekin, baina eragile politikoak gara eta gauzak alda ditzakegu. Errotikakotasun kontzeptua hizpidera ekarri nahi dugu. Kontzeptu horren bidez esan nahi dugu desberdintasunen kausen erroetara jo eta kausa horiek salatu behar ditugula.

**4/ Ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-eredu justu eta solidario baten alde egitea**, pertsonen eta lurraren (Ama Lurraren) eskubideak sustatuko dituena.

**5/ Eskubideak eta betebeharrak ditugun pertsonak** garela konturatzea, eta, beraz, besteei beren betebeharrak bete ditzatela eskatzeko betebeharra dugula konturatzea.

**6/ Erantzukizun berezituak ditugula konturatzea**; eragileetako bakoitzak erantzukizun-maila jakin bat du gaur egungo arazoen kausetan eta irtenbideetan.

Gure aldaketa-proposamenetan, ezinbestekotzat jo dugu:

**/ Tokian tokira jotzea**, ezagutza tradizionalak berreskuratzea eta tokian tokiko ekintzak balioestea.

**/ Jabetzea kontsumoa ez dela zoriontasunaren iturri**: gutxiago gehiago da.

**/ Gauza komunak balioestea**; eremu komunak eta bizitza komunitarioa sustatzea; lankidetzan jardutea, aurrera egiteko; zainketak balioestea; gizartearentzat baliagarriak diren lanak berriro abian jartzea, gizarte-balio handia dute eta, nahiz eta sistemak balio ekonomikorik ez eman.

Erakunde-partaideak: **ALBOAN**, **SEADen lagunen elkartea**, **Ayuda más**, **Zirkulu Solidarioa**, **Deshazkundea**, **Mugarik Gabeko Ekonomialariak**, **Entreamigos - Lagun Artean**, **Mugarik Gabeko Basozainak - PROFOR**, **Grain**, **Euskadiko Mugarik Gabeko Ingeniaritza**, **Indarra Dolle Kallpa**, **Intermon Oxfam**, **IPADE Fundazioa**, **Medicus Mundi**, **Mundubat**, **Bakea eta Elkartasuna Euskadi**, **Setem Hego Haizea**, **UNESCO Etxea**, **UNICEF**, **Mugarik Gabeko Albaitariak** eta **Zabalketa**.

## / MADRIL

Hogei urte igaro dira 1992ko Lurraren Goi Bilera egin zenetik, eta, gure ustez, ez da nahikoa aurrerapauso eman benetako garapen justua eta iraunkorra eraikitzeko. Kezkatuta gaude; izan ere, ikusten dugu estatuko eta nazioarteko korporazio handiek pisu handia dutela gaur egungo mundua eraikitzeko prozesuan, batetik, eta botere politikoen laguntza jasotzen dutela, bestetik.

Gizarte zibileko erakundeoi ukatu egin digute nahi dugun etorkizuna eraikitzeko eremua, baina guk berreskuratu egin nahi dugu. Aurrera jarraitze aldera, ezinbestekoa iruditzen zaigu hau guztia:

**1/ Ekintza positiboak balioestea eta baliatzea, tokian-tokian aldaketak eragiten ari dira eta**: praxia eraginkorragoa eta kutsagarriagoa da diskurtsoa baino. Balia gaitezen emozioen kutsagarritasunaz proposamen berritzaileak abiarazteko!

**2/ Tokian tokiko borroken bidez mundu mailako erronkei heltzea, eta erronka horiek maila guztiekin lotzen ikastea**.

**3/ Lehentasuna ematea ondasun komunen jabetze pribatuaren aurka borroka egiteari**.

**4/ Giza eskubideen ikuspegia kontuan hartuta heltzea mundu mailako ingurumen-erronkei**. Jar ditzagun praktikan giza eskubideak; ez daitezela orrietan gera. Vandana Shiva-k Rio+20n gogorarazi zigunez, bizitza ez da dokumentu bat: testuetan jasotzen duguna bizitza errealean mamitzen ez badugu, ezin dugu aurrera egin.

**5/ Geure buruari sinetsaraztea beste modu batera bizi gaitezkeela, eta "bizi ona"ren teoriak geureganatzea**: gutxiago gehiago da. Jabetzea kontsumoa ez dela zoriontasunaren iturri, ez eta gaur egungo krisialdiaren irtenbide ere, eta gogoan izatea kontsumo-ereduek loturak dituztela beste pertsona batzuen giza eskubideekin.

**6/ Axolagabekeria etetea eta gogoa berotzea**. Gai izan behar dugu proposamen hausleak egiteko; ez diogu beldurrik izan behar berrikuntzak egiteari.

**7/ Gaur egungo lan-sareak suspertzea eta beste aliantza batzuk sortzea**.

**8/ Banantzen gaituzten mugak gainditzea, eta indarrak batzea, helburu eta borroka komunen alde**.

**9/ Gure erakundeetan are barne-koherentzia handiagoa izatea, politikariei koherenteak izan daitezela eskatzen segitzeko**.

**10/ Herritarrei gure mezuen berri ematea**: baikortasunez mintzatzea, proposamen hurbilak egitea eta hizkuntza ulergarria erabiltzea.

Lantaldeetako erakunde partaideak: **Lurraren lagunak**, **CECU, Ekologistak Martxan**, **Habitafrica**, **ICID**, **Intermon Oxfam**, **Inspiraction**, **IPADE Fundazioa**, **Manos Unidas**, **ONGAWA**, **Plataforma 2015 y más**, **Red de huertos urbanos comunitarios de Madrid**, **SEO-Birdlife**, **SETEM**, **Nazioarteko Elkartasuna**, **UNESCO Etxea** eta **WWF**.

Argitaratzaileak:

Laguntzaileak:

Diru-laguntza:

Argitalpen hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiar Agentzia (AECID-ek) finantzatutako 07-CO1-072A hitzarmenaren partea da. Argitalpenaren edukia Fundación IPADE eta UNESCO Etxearen erantzukizuna da eta ez du AECID-aren edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren iritzia islatzen.